



Garazi-Aezkoa fazeria (1556-1998)

Jose Etxegoien

Ene sortzeko agerietan
ni naiz baxenabartarra
titulu horrek lehen hiltzean
galtzen du bere indarra
ni beheretar zertako deitu
nerez banaiz orotarra?
Goi ta beherik ez da enetzat
Nafarro bat da bakarra.


Bainan enetzat o Nafarroa
ez da ezin igarria
izena nola gorde dezun zuk
eta guk hartu berria
enbor sendoan sartu baitzuten
haizkora beldurgarria
zure laurki bat bertzerik ez da
ni bizi naizen herria.

Bi aldetarik nagusi bana
jarriz geroz Nafarroan
ez dakit gure etorkizuna
zoin ateri buruz doan
ez eta ere gaur zer hainetan
zauden zu euskaldungoan
bat gineneko egun ederrak
ditut bakarrik gogoan.

XALBADOR, *bertsolari Urepeldarra, 1920-1976*

I. Definizioa. Hitzamenak. legeak

Zaila da lege munduan sartzea, bederen gai honekin. Lur erabilpenerako arau anitz aurki daitezke, eta ikerketa dexente oraindik egin gabe daude. Herrien artean herri lurra probesteko noizbehinka hitzarmen bat egiten zen, zenbait baldintza eta izen desberdinekin: Pantzoneria, Elkarte, erdarazko “Unión”, Bozue, Ermandadea, Fazeria... Gu ez gara definizioetan sartuko, kronika bertzerik ez dugu aurkeztuko. Dena dela definizio batzuk oharretan aurkitzen ahal dituzue.



Garazi-Aezkoa fazeriaz erran daiteke bakoitzak lurraren jabea izanik, bertzeari eremu baten eskubide batzuk ematen dizkiola, batipat ura eta belarra erabiltzeko eskubideak, epe baterako eta egunez bakarrik.¹

– «Desde tiempo inmemorial, Coutume immémorial, Costuma inamemoriale». Gaztelaniaz, biarneraz eta frantsesez idatzitako esaldiak gauza anitz erran nahi ditu. Hitzarmen guztietan idazten da, eta honen bidez Thompson ikerlearen arabera aztura instituzionalizatu, legeztatu egiten da.

Inglaterra bertzeko herrietan bezala, ohitura, aztura, kostunbrea garrantzi handikoa zen. E. Cokex 1641ean erranen digu OHITURAK bi zutabe dituela: erabilera eta aintzinasuna. Hitzek hitz euskaratua, “denbora oroitezina”. Horregatik tentsio unetan bi aldeek aintzinasunera joko dute. Aezkoan, aetzen ustez lurra berea da eta fazeria haiek ezarri eta bertan behera utz dezakete. Garaztarren ustez fazeria aspalditik hitzartua zenez, haiek ere fazerian eskubideak zituzten. Bidartek komentatzen digu Baigorritarrek ohitura erabili zutela nobleen kontra herrien eskubideak defendatzeko. Hori lortu zuten, bederen Frantziako Erreboluzio-nearen garaia arte.²

– LEGEAK. XIII. mendeko Nafarroako Foru Orokorrean fazeriendako zenbait arau ezarri ziren, aldaketa gutxirekin XVIII. mendean indarrean mantentzen ziren, baina ez dute zehaztasun handirik ematen. Behe Nafarroako Foru eta Ohituretan, bi atal daude eta argiagoak dira, motzak izanik ere, herriei arautzeko eskubidea uzten zaie. Lehenbizikoan argi uzten da parte hartzaileek ohitura, “la coutume immémorial”, jarraitu behar dutela, eta batek fazeria bertan behera utziz gero, isuna jasanen du.³

1.1. Hitzarmenak

Abeltzainen arteko eztabaiden zerrenda luzegia litzateke. Zergatik pizten ziren? Eskubi-deagatik, jabetasunagatik... denetarik ziren, baita liskar gogorrek ere, Arabako Arana ibarran gertatzen zen bezala, enfrentamendua abeltzain eta basoa defenditzen zutenen artean sortzen ziren. Yanguasendako ere, fazeria batzuen sorrera bi herrien arteko istiluak baretzeko egiten zen.⁴

Adibide anitz daude fazeria eta mota guztiendako hitzarmenak. Baretous eta Erronkari arteko gatazka eta ondoriozko Behi Tributua ezaguna dugu, eta Euskal Herrian zehar anitz aita ditzakegu. Gipuzkoan, Aralar-Enirio Mendi Mankomunitatean istilu gogorrek sortu ziren 1792an, Amezketaren herria kanpoko azienda gehiegi sartzen ari zen eta horren kontra jo nahi zutelako. Tiroka akabatu eta 14 preso izan ziren. Azkenean 15 herrien arteko bakea lortu zen.⁵

Arazo anitz ere Araba-Gipuzkoa Pantzonerian sortuko dira. Urbia-Altzania aldeko oihanetan kokatu behar da Pantzoneria hau. Arazoak auzokiden artean ere sortuko dira, eta normalean hitzarmen batekin bukatzen zen, Legazpi herriarekin kasu. Nafarroako Burundarekin azkenean, Gaztelak konkistatu zuenez, Erreinu baten pean batu ziren eta 1516an hitzarmen bat sinatu zuten Burundak eta Pantzoneriak, fazeriaren egitura parekoa sortuz.⁶ Erran bezala, anitz dira Euskal Herrian. Batzuk besterik ez ditugu aipatuko:⁷

ARABA: Salbada mendilerroa: Amurrio, Laudio, Lezama, Aiala eta Okendo herrien arteko hitzarmena. Badaiaiko Ermandadea: Kuartango ibarraren herrien artean.

- Entzia mendilerroko 3 pantzoneriak: «General», Iturrieta eta «Entzia Arriba» izeneko 3 pantzoneria daude, Arana ibarrako herriak, Roitegi, Onraitia, Agurain eta bertze herri batzuk parte hartzen dutelarik.

BIZKAIA: Gorbeia mendietan: Zeanuri, Areatza, Zeberio, Arteaga, Arratia ibarreko herriak eta Arabako Zigoitia ibarreko herrien arteko hitzarmena.

GIPUZKOA: Enirio handi eta txikiko Bozue edota elkarteak: Arama, Alzaga, Itsasondo, Legorreta, Zaldibia, Gaintza, Lazkao, Beasain, Ordizia eta Ataunen artekoak.

- Aralarko elkarteak edo «Unión»: Orendain, Abaltzisketa, Baliarrain, Ikaztegieta eta Amezketaren.

LAPURDI-NAFARROA: Sara: bat Etxalar eta Berarekin, eta bertzea Baztanekin.

BEHE NAFARROA-ZUBEROA: hitzarmen bat aipatzen da esaterako Garazi Zuberoarekin.

NAFARROA, BEHE NAFARROA ETA ZUBEROA: Arregik eta Etxegaraik fazerietan bi mota aurkitzen dituzte, segun eta herri bakoitzak luraren jabetasuna mantentzen duten ala ez.

- Bardeak: Herri anitzek parte hartzen dute, Erriberako zenbait herri, baita Erronkari eta Zaraitzu ibarrak ere.

- Baztan-Erroibar-Orzaize: Baztan Erroibarrarekin batetik eta Orzaize ibarrarekin bertetik.

- Erronkari: Erronkarik 3 hitzarmen zituen. Aipatutako fazeria, Biarnoko Baretous herriarekin, festagatik fama duena; Aragoiko Anso ibarrarekin: hitzarmen bat, eta Zaraitzu ibarrarekin bertze fazeria bat.

- Zaraitzu: Garazi eta Donibane Garazirekin: 1445ean fazeria bat sinatu zen, «carta de Paduena» deituz. Fazeria 1507, 1530. urte inguruan, 1559an eta 1759ean bederen berretsi zen. Zuberoarekin: XVIII. mendean arazoak sortu ziren eta konpontzeko, fazeria ezartzen saiatu zen, lortu gabe.

- Aezkoa eta Zaraitzu: Hiriberri eta Eaurtako fazeria zegoen eta dago. Pasa den mendearen

ondarrean bertze bat aitutzen da, baita desegiten dela ere. Aezkoa-Garazi eta Donibane Garazi: ikerketan aztertuko duguna. Aezkoa-Zuberoa: komentatuko duguna.

Nafarroa mailan, Nafarroako Gobernuak 1996an ateratako biztanle kopuruaren zerrendan 6 amankomuneko mendi eremu eta 64 fazeria aipatzen dira. Iruñea inguruan 400 Ha fazeriendako dira; Lizarraldean; 10 fazeria 32.000 hektaretan hedatzen dira; Bera eta Urruña; Sara eta Baztan, Irun, Oiartzun eta Lesaka... eta hamaika gehiago Euskal Herrian zehar.

II. Aezkoa-Garazi Fazeria

II.1. *Aezkoa eta Garazi historian*

Garazin Behe Paleolitikoko aztarnak aurkitu diren bitartean, Aezkoan Goi Paleolitiko arte itxoin behar dugu aztarnak izateko. 2 ibarretan cromlech, tumulu eta trikuharri ugari daude. Garazin aipatzekoak dira erromatarrak ailegatu baino lehen, defentsarako eraikuntzak: *Gastelu*, *Gastelumendi*, *Zerkupe*... Gero? Bordele-Astorga galtzadak ingurua baldintzatu zuen. Garazin herri erromatarra dugu, Donazaharre, (*Imus Pyrenaeus*). Aezkoan gauza gutxi, Erromatar bide den Urkulu monumentua eta Txangoan egitura erromatar duten zenbait meategi. Gertu, Auritzen I. mendeko hilerri eta eraikuntza batzuk, galtzadan bertan, eta kitto. IV eta XI mende artean ez dugu berririk, gertakizun bakarra Orreaga guda famatua. Nafarroako Erresuma IX. mendean egituratzen hasi zenean, Aezkoa barne zegoen eta Garazi ez, denbora batez ingelesen esku izan zelarik. XII. mendearen akaberan Behe Nafarroa Nafarroako Erresuman sartuko da. Garai honetan, ibarrak definitiboki egituratuko dira. Bitxikeria gisa, 1270 urte inguruan Garazi eta Aezkoak zerga biltzaile bera dute, Abaurreko apaiza. 1128-35 urteetan sortutako Orreagako Kolegiatak eremu handi batean sozioekonomia kontrolpean izan eta baldintzatu zuen, gune erlijioso eta ekonomiko bihurtu zelarik. Eragina Garazirendako XVII mende eta Aezkoarendako XIX. mende arte luza daiteke.

Dokumentazioaren aldetik 2 ibarrak XI. mendean lehenbiziko aldiz agertzen zaigu. Aezkoa 1007. urtean, Santxo Handiaren donazio batean: «parte vallis de Roncal et Sareçaco atque Aezquoa...»; geroago «tenencia» bezala 1079. ean, «Senior Eximio Arceiz in Sarrasazu et in Aezcoa». Ibarrek 8 herri osatzen zituen, Abaurrea herri bat zelako, eta Hiriberri herriaren izena kontutan hartzen badugu, hasieran 7 herri bide ziren. Garaziren egituratze eta dokumentazioan agerpena mende berberetan koka dezakegu, esaterako Baionako Apezpikuaren eremua finkatzean, 1106. urtean, baina izena goizago ere agertzen da, euskaraz, *Blasco de Garaci* 1068an, zein erdaraz, *San Vicente de Cirsa*, 1072ean.¹⁰ XIV. mendeko jende kontaktetan, Nafarroako lehenbizikoa 1366 urtekoa zen, Garazik 21 herri omen ditu.

II.2 *Fazeriaren aurkezpena*

Nafarroan ditugun ohidura zarrenetarik bat da Erronkariko-ek Frantziako mugan egiten duten bilkura urthe guziz. Baretous, Biarnés herrikoekin... Saraitzu ibarrak edo haranak, bai eta Aezkoakoek ere urthe guziz egiten dituzte antolamendu eta hautsimautsiak Baxenabarrekoekin, heien eta hemengoeha ahlpidetan aziden bazkatzeko. Eta antolamendu horietan xuritzen dute zonbat pagatu behar dien buru bakotzak. Garazi eskualdeko hogoita hiru herriek urthe guziz eramaiten dituzte ardiak, behiak eta behorak Aezkoa'ko sorhoetarat, mugako mendietan, eta han alhatzen dira Udaberrietik

Udazkeneraino. Luzaidetik ere negu minean igortzen dituzte ardiak Benabarreko zelaietarat eta Laphurdiko zombait alhapidetarat...

MANEZAUNDI, idazle luzaidarra 1935¹¹

Konparazione gisa, zenbait datu *grosso modo* hartu ditugu:

	AEZKOA	GARAZI	Fazeria
KM (herrietatik fazeriara)	5 - 11 km.	6 - 20 km *	
Altuera (Herrienak eta fazeriarena)	700-1050 m.	150-350 m.	800-1450 m.
Fazeriaren hedadura (1955eko datuak)	4.500 ha	1.700 ha	6.200 ha

* Egia erran Garazin 9-20 km artean daude, batetik Arnegi eta Ondarrola lehen Luzaide baitzen eta bertetik Esterenzubi ez zen existitzen, borda eta etxe batzuk bertzerik ez baitzen. Ofizialki Esterenzubi 1842an sortu zen.¹²

III. Fazeriaren kronika

III.1. 1536ko hitzarmen bat Zuberoarekin

Erabiltzen dugun dokumentua 1817ko hitzarmenaren kopia da.¹³ Urte horietan Aezkoa eta Zaraitzun artean epaiketa bat burutzen ari zen, Zabaleta eremuaren jabetasunaz. 1536-X-26an Zuberoa eta Aezkoako ordezkariak Orhipean bildu ziren hitzarmena sinatzeko, Aspildoin hain zuzen.

Azienda harrapaketa arautu eta isunak ezarri ziren. Gero Garazikin gertatuko zen bezala, azienda hartu ondoren jabea ez bazegoen leku gertuenean utzi behar zen, Zuberoko Larrañe edo Lakarrin eta Aezkoako Hiriberri edo Orbaizetan. Abeltzaina abisatu ondoren, isuna ordaintzeko sei egun zituen, (garaztarrekin 15 eguneko epea ezarri zen), bertzela azienda harrapatuta zuenak aziendarekin nahi zuena egiten ahal zuen.

Azienda larriak, abelgorriak eta zaldiak, isun handiagoak zituen eta azienda xehea: ardiak, ahuntzak eta txerriak, gutxiago. Azienda harrapatuta duenak froga bat eska dezake, eta ordun harrapatu dutenek lekuko aintzinean elizan zin egin beharko dute harrapaketa legalki egin dutela. Azienda indarrez berreskuratu nahi bada, 50 *morlaes* isun ordainduko da, eta azienda harrapatzera bakeaz joanez gero, ezin zaie inolako trabarik jarri. Ebasketa bat gertatuz gero, kaltea ebaslearen herriak ordainduko du.

La forma y modo conque serán hechas en adelante las prendadas y carneramientos en los ganados, es á saber, que deberá haber allí tres amos de casa, y en el caso que haya tres amos en una misma casa, el mas viejo ó anciano deba asistir en este caso, y el parage donde se haga el carneramiento precisamente por tres amos de casa como dicho es, el dueño del ganado podra reclamarlo si son obejas hasta el numero de diez cabezas sea extraviadas ó de otro modo pagando un liard por cada prendada y pasandoel numero de diez la pena de la prendada será un franco bordalés, y en quanto a las bacas con sus crias, yeguas caballos ú otros de su naturaleza hasta el numero de cinco cabezas se pagarán seis liards por cada prendada, y si el numero pasa de cinco cabezas, la pena ó prendada será de dos francos bordaleses pagaderos á los que hagan la prendada...

Interesgarria da ikustea komertzioa ere arautu nahi izan zutela. Bien arteko komertzioa askatasun osoz aritu nahi zuten, baina ez zieten utziko, hori ezin zutelako erabaki. Bi aldeek subirotasunaren ideia ez omen zuten artean argi, edo agian osoa zutela pentsatzen zuten.

Cuyo contenido han loado y aprobado en la forma acostumbrada, salvo el segundo artículo de las convenciones, por el que se dice, que el comercio les será libre á las dichas tierras de Sola y Aezcoa, á los habitantes de dichos Lugares, cuyo artículo ha sido desechado por no tener el poder ni permiso...

Hitzarmena ez da berriz aipatuko. XVIII. mendean, Bortuetako larreak direla eta, aspaldiko partez Zuberoa eta Zaraitzuren artean zegoen arazoa berpiztu omen zen. Arazoak konpontzeko, 1756an Zuberoako zenbait ordezkari Iruñera joanen dira. Nafarroako Parlamentuko Gaiarre idazkariak paper batzuk erakutsiko dielako, eta batean Aezkoa eta Zuberoaren arteko muga aipatzen bide da.¹⁴ Hor agertzen da duda, ea *La Cuestion* eta *Zabaleta* eremuak aetzak zirentz. Egun bien artean ez dago mugarik. Ematen du garai horretan Aezkoak eta Zuberoak argi zutela aetzena zela, eta hortik hitzarmena. XVII. mendean Zaraitzu ibarrarekin zati horietaz hasi zen eztabaida, eta zaraitzuarren eraso zein jabetasun erreibindikazioak noizbehinka azaleratuko dira. Eztabaidak egun arte iraun du.

III.2. 1556-58.eko hitzarmena

Aldi bat janziren Donianeko kantonamenduko gizonak mendirat, españolekin behar baitzuten beharraz aziindendako tratu at egin. Donianeko Salaarri meharra notaria bere kantonamendu ko aitzindari guziekin. Ahezkotik jin zitzeen bat hectarat. Salaarri meharrak eman zakon paper bat bere kondizioniak nola zitin leit zezan. Ahetzak hartu zin eskuinetan paperra eta buruzbeheti zarri ziin paperra. Eta erran zukon Salaarri meharrak: —Adixkide, paper hori bertze alderat itzul azu leitzeko. Españolak erran zakon: —Jauna, gi guzietara dakienak nola nahi leitzen du. —Ia, Jauna, eztia bertze gizonik Aezkoan zu bezik huna jiteko? Aezkoarrak erran: —Bai, Jauna, Aezkoan baituzu gizonak. Eta hek igorrituzte gizonetara eta ni igorri nute zuetara.

Baigorriko Urepel herrian bildua¹⁵

Dokumentua ez dago Aezkoan, bada, bibliografian oinarrituko gara. Hitzarmena 2 urtetan garatu zen. 1556-II-31ean Garazi ibarrekoak, Donibane Garazi ezik, *Ussasoa*-ko S. Pedron bildu ziren ordezkari izendatzeko. Donibane Garazikoak ekainaren 4an eta aetzak, Junta apaizen laguntzarekin Ariben 10ean bildu ziren. Ordezkariak Urkuluren magalean bildu ziren, *Iriburietan*. 1558-II-14an Errekulusako Magdalena elizan Garazi eta Donibanek hitzarmena onartu zuten eta Aezkoak 14 egun beranduago. Donibaneren aldetik 4 ordezkari ziren, eta Garazi ibarraren 13 bederen. Muga zehaztu ondoren, faziaren arauak onartu ziren. Azienda egunez bazkatzen ahal zen, eta iluntzean erretiratu behar zen. Gainera ezin zen azienda harrapatu. Mendi zesioaren txostenetatik zenbait erreferentzi atera ditugu:

Garazi eta Donibanek onartutako erabakitik, 1558-II-14: «se guarde la Facería de siempre à esta, y los ganados de cualquiera calidad de la villa de San Juan y tierra de Cisa de sol à sol así que usado puedan pacer sin impedimento alguno en los términos puertos y montes de la dicha tierra de Aezcoa y los ganados de la dicha tierra de Aezcoa... en los términos montes y puertos de las dichas villa de San Juan y tierra de Cisa...».

Aezkoak onartutako erabakitik, 1558-II-27: «atendiendo, que era en bien comun utilidad y provecho así para los de la villa de Sn Juan y tierra de Cisa como para los de Aezcoa, loaba y aprobaba por bueno todo lo contenido en la carta de amojonamiento y dividimiento de términos con las clausulas y condiciones de la misma forma, que contiene y narra el autor de loamiento é instrumento público de ratificar otorgado por la villa de San Juan y valle de Cisa...».

Arbelbideren arabera, 1556koa ongi zehaztutako lehenbiziko hitzarmena da.¹⁶ Caro Barojak 1567ko berri bat ematen digu. Bortuetan arazoak sortu ziren, Garaziko ardi batzuk gaixo zeudelako eta isolatu ezean, *carraca* deituriko gaisotasuna hedatzen ahal zen. Batzarreran irtenbidea aurkitu behar izaten zen eta jabeak abisatu ondoren,azienda gaixoa Bortuetatik bidaltzen zen. Ez zen hori erabaki. Arazoren bat sortu zen artzain aetzek Garazikoazienda osoa Bortuetatik ateratzeko eskatu baitzuten. Horretarako mendizain eta idazkari izendatzeko eskatu zuten.¹⁷

Irati Oihana.¹⁸ Aipatzekoa da garai berean Irati inguruko ibarrek zenbait hitzarmen sinatu zituztela. Ematen du elkarrekiko harremanak dokumentuen bidez mantendu nahi zutela. Hitzarmen hauek egin ziren:

– *Aezkoa-Garazi-Donibane Garazi*: aurkeztu duguna.

– *Aezkoa-Zaraitzu*. 1557an akordio bat sinatuko dute. Horretan aipatzen da arazoak izan direla eta konpontzeko Abodi mendilerroan larre erabilera eta muga zehaztuko dute. Mugarriak Abodiko magaletik Irati ugalderraino imini ziren, gutxi gorabehera lerro bat segituz. Aldi berean sasi fazeria bat ezarri zen, muga bi aldeetako «dos tiros de ballesta» eremuan besteenazienda onartzen baitzen, haien ustez,azienda itzala eta ura behar izaten zituen eta.

– *Zaraitzu-Garazi-Donibane Garazi*: 1559an fazeria berriz sinatuko dute, 1445koa berretsiz. Interesgarria eta berezia da fazeria hau. Artean aipatu posiblea zela gabeenazienda uztea.

III.3. 1618.eko hitzarmena

1618-VII-16an Jasaldean hitzarmena sinatu zuten.¹⁹ Lehen, 1616an ordezkari izendatu eta mugarriak berrikusi zituzten, fazeria hitzarmena, erran bezala, 2 urte beranduago sinatu zen. Ikus ditzagun pausuak.²⁰

1616-VI-5ean. Donibane Garaziko ordezkari izendatzea. Herriko etxean bildu ziren. Hirien ordezkariak 3 arbitro edo bitartekari izendatu zituzten.

1616-VI-27an. Garazi ibarrako bilera. Errekulusako S. Magadalenan bildu ziren Garazi ibarra eta Donibane Garaziko ordezkariak eta 11 arbitro edo bitartekari izendatu zituzten.

1616-VII-6an. Muga bilduta mugarri errekonozimendua egiteko. Aezkoako Junta Ariben bildu zen ordezkari izendatzeko. Muga errekonozimendua eta fazeria hitzarmenaren berri beharraren zergatiak azaltzen dira. 1556-VI-2 eta 4an prestatu eta 1558-II-14 eta 17an sinatutako hitzarmenean izan ziren notarioak zenduak ziren, Donibaneko Pedro Longras idazkaria eta Juan de Socarro notarioa batetik eta bertzetik maiatzean Aezkoakoa zendu da, Garaioako Pedro de Garayoa notarioa. Gainera, denboraren poderioz mugarri batzuk desagertu dira. Horrela Aezkoak arazorik sor ez dezan 3 partaideak biltzeko eskatuko du: «por quanto despues aca con el grande discurso del tiempo se ha entregado y perdido alguno de los mojos de la dha division que al tiempo se pusieron por las personas diputadas y nombradas por las dhas partes y sobre los lugares y puertos donde estaban aquellos de cientos de años a esta parte tienen ciertas diferencias...». Orbaizetako apaiza, Juan de Arostegui litzentziatua; Hiriberriko apaiza, Juan Remon; Ibarreko alkatea, Juan de Aramburu; Juan de Zubialde abaurretarra eta Juan de Irigoyen ariatarra, Aezkoako ordezkariak izan ziren.

1616-VII-6an, Errozaten bildu ziren, eta 1556ko dokumentua irakurriz, mugarri errekonozimendua hasi zen. Ibarren artean hemeretzi mugarri edo markak zeuden. Lehenbiziko

egunean 4 leku bertzerik ez zituzten ikusi eta bigarreanean bertzeak. Hemeretitik bederatzik desagertuta zeuden, guztiak mugarri/zedarriak. Inolako erreklamaziorik gabe berriz imini ziren.²¹ Aipagarriena da 16 eta 19. mugarrien arteko lurretan egoera berezia onartu zela. Bi aldekoazienda ibiltzen ahal zen bi aldeetan, gauzez zein egunez, bazkatu zein ura hartzeko, buru batzuk zein saldo osoa. Hori bai inork, inork ezin zuen suterik piztu ezta aterperik eraiki ere. Hori gertatuz gero, edozeinek eraikitakoa desegin lezake.

Ordezkariek susmoa baino gehiago zuten errudunak hor ibiltzen zirenak zirela: artzainak, behortzainak, unaiak... eta aberedunak.²² Aintzinean urtero uztailaren 4an bilduko dira muga ikustatzeko, batzuk Igoa iturrian Idopilaraino joateko eta bertzeak Idopilen hasiz Iriburieta-raino. Mugarri bat erori edo desagertuz gero, inguruan ibiltzen zirenek 15 egun baino lehen abisua eman behar zuten, aldi berean erruduna salatuko zutelarik. Errudunari 15 dukat isun ezarriko zitzaion: heren bat gastuendako, heren bat erregearendako eta azkena salatariarendako. Abisua ematen ez zuenari ere isun bera ezarriko zitzaion:

los dhos Procuradores y cargotubientes acordaron y mandaron que ade aqui adelante ninguna Persona de la dha villa de San Juan y tierra de Cisa ni de la dha tierra de Ayezcoa sean osado â quitar ni renovar ninguno de los dhos mojones... se sospecha que los agresores y culpados son los Pastores y ganaderos de ambas las dhas partes por estar ellos á la continua con sus ganados juntos y pegante á los dhos montes y aunque los bean remobidos y echados nunca se ha visto aver dado abiso los unos y los otros, y por esa causa suceden los dhos inconvenientes... acordaron y mandaron que quando se ofreciese algun reconocimiento ô perdicion de semejante mojon , ô mojones los dhos Pastores y Ganaderos dentro de quince dias tengan obligacion de dar aviso à dambas las dhas partes de como se falto ô esta echado el tal mojon y de saver quien sea el agresor y culpado, y hallandose quien son tenga de pena tal Pastor ganadero ò persona quince ducados... y que tenga la misma pena el que no diere el dho aviso... se de aviso ante los dhos Notarios para que les conste de ello y nadie pretenda ignorancia...

1620an berriz bildu ziren mugarriak berrikusteko, eta konturatuko dira Urkulun bat falta zela. Dokumentuan erraten da mugarriak ikusteko urtero uztaillean biltzen direla: «sus mojones y suelen y acostumbran reconocer en cada un año en el cuatreno dia del sobredicho mes y año». Mugarrien garrantzia handia zen, eta bat kentzea oso gaizki ikusia zela. Hona hemen adibidez, Barandiaranek Garaziko Mendiben bildu zuena:²³

Itz emana bear da kunplitu: bestela hil eta gero arima - erratu izan da. Orduan erraten da: Jinkoak ez du errezibitu. Hala ibili omentzen zedarri saildu zuen gizon bat. Nun sartuko dut? Erraten omentzuen. Lehen zen lekian, errepustua eman omentzion batek. Geiago ez omen zen otsik.

III.4. 1710.eko hitzarmena

1702an muga errekonozimendua egin zen. Gero, 1715eko hitzarmenari esker dakigu 1710ekoa ere egin zela. 3 aipamen ditugu.²⁴ Lehenbizikoan data bertzerik ez dugu eta bigarreanean erraten da Garazik dirua ordainduko duela fazeria izateagatik. Bi epetan ordainduko da, uztailaren bileran eta irailearen Ama Birjinan bigarrena. Bakoitzean Aezkoa ibarrari 28 peso eta 75 erreale ordainduko dizkio, ziur aski azienda kopurua konpentsatzeko. Arvizuk emanen digu hirugarrena. Berak dio garaztarrek fazeria errespetatzen ez zuenez, aetzek desegin nahi zutela. Agian egia da, baina eztabaidatu ondoren, ados imini bide ziren garaztarrek ordain zezaten.

III.5. 1715.eko hitarmena

1715-VII-4an Iriburuetan bilduko dira.²⁵ Aezkoako Junta osoa izanen da eta Garazi izenean zenbait ordezkari: Nafarroa Beheko «Castelan»; Garazi hiriko alkatea eta deputatu bat eta Garazi ibarraren 3 diputatu, (Yaniz, Hiriberri eta Zaldunbidekoa). Artzainakazienda gauean uzten hasi direla da arazoa:

es noticia de los dichos Señores otorgantes que diferentes pastores de Unas y otras partes a mas de gozar de sol a sol los terminos fazeros con que por bia de Union se corresponden entre ellos con poco temor an tomado libertad de passar a hazer noches cautelosamente con especialidad los del dicho Valle de Cisa...

Berriz gerta ez zedin, isunak handituko dira. Gaua fazerian pasatzeagatik ardisaldoko 8 erreal edo buru bat emanen da eta egunez harrapatzen bada 16 erreal edo 2 buru. Harrapaketa regidoreek edo deputatuak bakarrik egin dezakete. Lekukorik ez badago, bere hitz emana nahikoa izanen da harrapaketa ontzat emateko. Harrapatu ondoren, abereak tratatu txarra jaso gabe gordeko da, eta 15 eguneko epean jabea agertzen bada, isuna eta zainketa bakarrik ordainduko du, bertzela artzaina epaituko da eta erabakiaz aparte, epaiketaren kostoa ere ordainduko du. Garazik Aezkoari dirua bi epetan emanen dio, uztaila eta irailean, 1710eko hitzarmenean onartu bide zen bezala. Aurrerantzean eredutzat hartuko da hitzarmen hau.

III. 6. 1716an Aezkoak fazeria desegin nahi du

Uztailean hitzarmena egin zenetik, bi gertakizun izan dira.²⁶ Garaziko artzainek bi eraso burutu dituzte Aezkoako mendietan. Batean Garaziko Samacozy artzainak Orbarako Miguel de Landa regidorea harrika zauritu du, regidoreak Aezkoako larretan bereazienda legalki harrapatzen ari zelarik. Bertzean Garaziko artzainek Martin de Juangorri, Hiriberriko gaztea hil dute Irati deituriko larretan, berari 8 behi hartu eta erreklamatzera joan zenean. Bi erasoak ikusita, Aezkoak abisu emanen die fazeria desegin dela:

desde la Ultima dicha Junta a esta parte quando los requirientes y su dicho Valle muy satisfechos creyan hallarsen con pura paz sosiego y quietud sean cometido por pastores particulares de dichos Valle de Cisa y Villa de San Juan entre otros escesos dos maldades notoriamente ofensivas la Una la de acusarse maltratado por erido grabemente de Pedradas al dicho Miguel de Landa Regidor y Diputado del referido lugar de Orbara al tiempo que egecuto en los terminos de este nuestro valle con toda razon justicia la aprension del ganado de fulano Samacozy de cuya erida por mal trato a estado en peligro de muerte y la Segunda lo que mas es de admirar la de aver muerto dias atras en el parage llamado Irati a la persona de Martin de Juangorri mancebo natural de dicho lugar de Villanueva sin aver tenido otro motibo que el de aver insistido a dos sugetos de dicho Valle de Cisa a que dejara ocho cabezas de ganado vacuno que dicho dia les llevaron a dicho difunto por otros sin razon alguna con notoria contrabencion de lo pactado i dispuesto en dichas escrituras de combenios y concordias entrambas partes... se requiere a los dichos sres, Attes, Señores Castelan Alcaldes Caballeros y regimientos de dichas Valle de Cisa y Villa de San Juan y sus personas Diputadas se desaga y disuelba la dicha fazeria y comunes Usados acostumbrados en virtud de escrituras y concordias antiguas y modernas por entrambas comunidades... Desde dicho dia segundo incluye a la notificacion de este dicho requerimiento...

Aezkoako Batzar Nagusia, 1716-XI-14

Iskanbila baretu zen. 1718an 2 ibarretako ordezkariak mugarriak errekonozimendua egiten aurkituko dugu. Fazeria dela kausa garaztar batekin auzi bat sortu zen 1730ean. Aetzek

Garaziko Juan Destalurs-i 37 ahari harrapatu zizkieten Aezkoako mendietan. Juanek Garazin salaketa imini eta Nafarroako Erret Kontseilura ailegatu zen. Aezkoaren arabera, «vecindad forana» eskatua zuen ibarran, baina Aezkoan egoera administratibo hori onartzen ez zenez, ukatu egin zioten. Jakin arren, bereazienda fazerian sartu zuen, harrapatu ziotena. Juanek damutua isuna ordaindu etaazienda etxeratu zuen. Nafarroako Erret Kontseiluak ez zuen auzia argi ikusi. Ikertu ondoren, Kontseiluak erabaki zuen Juan Garaztarra izatean, fazeriako eskubide guztiak zituela eta ez zegoen ordaintzerik. Bada, Aezkoak isuna bueltatu behar izan zuen.²⁷

III.7. 1750.eko hitarmen saiakera

1742an hitzarmen berria sinatu zen, baina 6 hilabete bertzerik ez zuen iraun, Garaztarrek bereazienda ezezik, kanpotarrena ere sartzen zutelako. Arvizuk erranen digu 1749tik Nafarroako erretordeak zenbait txosten edo gutun idatzi zuela arazoa konpontzeko. Dirudie-nez, berriz hasiak ziren istiluak. Ordezkariek 1750-VI-17 eta 18an bildu ziren baina ez zuten akordiorik lortu. Yanguasen arabera, 1751-VI-4an Aezkoako mendietan garaztarrek eraso gogor bat burutu zuten, aetzei 150 behi hartu zizkietelarik. 5 egun beranduago Bortuetan 100 garaztar armaturik agertu ziren, eta artzainak tirokatu ondoren, 200 behor eta ardi anitz eramane zituzten. Aetzak azkar mugitu ziren, uztailean 11ean Iruñean 2 ibarren ordezkariek bilduko baitira, azaroan berriz bildu zirelarik.²⁸ Bileraz Aezkoako idazkariak idazten duen kronika bitxia da. Eztabaida gogorra izan zen.²⁹ Azaroaren 18an, goizeko 8etan bildu ziren, Luzaideko Arraneguizar etxean. 1718ko mugarri errekonozimendua ontzat eman ondoren, Aezkoak baldintzak aurkeztu zituen:

- Hitzarmenak 4 urte iraunen du. Urtero uztailean errekonozimendua errepikatuko da.
- Ezin da kanpotarrenazienda sartu, ezta gaueanazienda utzi ere. Isun berriak ezarriko dira.
- Azienda harrapaketa mendizainek egin dituzte edo barrideek regidore bat lekukoa izanik.

Garazik hitzarmena betirako izatea nahi zuen, baina Aezkoak ez zuen onartuko. 11etan etena eginen da:

«biendose su inflexible resistencias y que quantas recompenciones se les podian presentar para que cediendo de su empeño se acomodasen a lo que fuese de razon, no serbian; se ceso por entonces en dichas conferencias...». Eguerditan garaztarrek joan nahi dute. Aetzek erantzungo diete fazeria deseginen dela eta lasaitasunez konpontzeko berriz elekatu nahi dutela. Zubian bilduko dira: «persuadirlos anticipadamente con los medios mas suabes a que reflexionasen y se tratase entre todos si abia algun medio de composicion se les dio abiso para que se sirbiesen salir al paraje del dicho Puente, y aviendolo executado asi se expreso con particulares encarecimientos lo combeniente que abia de ser para todas las comunidades el que en paz se mantubiesen...». Garaztarrek iritzia aldatu ez dutenez, aetzek idazkariari aginduko diote fazeria desegitearen abisua idatzi eta emateko. Guixoia garaztarra sutan iminiko da, enfrentamenduaren harriskua sortuz: «se altero de tal suerte precipitado en colera uno de dichos apoderados llamado Guixoia que no queriendo permitir se le hiciese dho requerimiento ni se le dijese cosa alguna con muchas amenazas luego luego se puso en el empeño de que se le abia de dar su poder, y respondiéndosele que tubiese paciencia, y que se le entregaria sin embargo continuando en su colera acciones descompuestas y amenazas de que por bien ô mal se le abia de dar cumplimiento a lo que decia por segun su furor que a sus mismos compañeros les fue mal visto se recelo que diese motivo a un motin ô alboroto... parecia combeniente ê inescusable el darselo...».

Guixoiak zubia pasatu eta mehatxuka hastean, aetzek enfrentamendua ekiditeko, eskutako idazkia eman eta alde egin zuten. Abenduan Aezkoako Juntak Mendiri auzapezari gertatutako bertsioa idatziko dio. Honez gero, fazeria indargabetua zegoen.

III. 8. 1751.eko auzia konpontzeko aurreakordioa

Auzia konpontzeko, 1751-VIII-11ean Iruñeko Erret Jauregian bilduko dira, Nafarroako ordezkariak, Garaziko alkatea, Mendiri Jauna eta Aezkoaren izenean abokatu bat. 18 puntuko aurre hitzarmena sinatuko da, gero ibarrek eta hiriak onar zezaten. Hona hemen 19 baldintzak:³⁰

- 1 - 1749-V-27tik aintzina harrapatutakoazienda bueltatu edo ordainduko da, lehen izanikoak ixilik utziz.
- 2 - Harrapatutakoazienda bueltatuko da edo tasatzaileen bidez ordainduko da.
- 3 - Garazi eta Donibanek Aezkoan erretako borda eta aterpea ordainduko dituzte.
- 4 - 2 aldeek 1618ko mugari errekonozimendua onartuko dute.
- 5 - Fazerian Garazik eraikitako etxe eta bordak eta landutako larreak mantenduko dira, baita aetzek landutako larreak ere.
- 6 - Ez da eraikuntza eta landutako larre berririk onartuko. Zerbait galduz gero, leku berean bakarrik berregin daiteke.
- 7 - Kontrola eramateko jabeekazienda deklaratu dute eta informazioa ibarren artean trukatu dute.
- 8 - Ereitako eremuetan, uzta bildu ondoren,azienda sar daiteke.
- 9 - Artzainek zin egingen dute kanpoko azienarik ez dutela sartzen. Gero «villeta o testimonio» agiria emanen zaie.
- 10 - Aurrekoa betetzen ez bada, Isun gogorak ezarriko dira.
- 11 - Egunez,azienda xeheko 10 buru aurkitzen badira, (ardi, ahari, ahuntza) 20 zilarrezko erreal edo 10 Frantziako libra isun ordainduko da. Azienda larria izanez gero, 2 zilarrezko erreal buru bakoitzeko eta zilarrezko erreal bat txerri bakoitzagatik.
- 12 - Harrapaketak artzainek regidore, deputatu edo mendizainak lekuko egiten ahal dituzte.
- 13 - Harrapaketan 24 ordu epea dago jabeari abisatzeko. 2 egun pasa ondoren manutentzia ere ordainduko da.
- 14 - Azienda harrapatzen duenak, udan goiz zein arratsez 3 ordu bederen bazkatzera aterako du. Neguan egun osoa.
- 15 - Azienda errekupeatzeko oztoporik ez izatearren, herri gertuetan gordeko da.
- 16 - Hitzarmenak 9 urte iraunen du, kontrol bilerak 3 urtez egingen dira.
- 17 - 9 urteak pasa ondoren, hitzarmena berrituko da.
- 18 - 2 ibarrek eta Donibane hiriak aurre hitzarmen hau onartu beharko dute.
- 19 - Bakea lortzeko aurre hitzarmen bakarra da hau.

Garaztarrek ez zituzten 6. eta 11. puntuak onartu, bere kalterako zirelako.³¹ Artxibategian datarik gabeko paper solte batetan, kronika parekoa kontatzen da.³² Dokumentuaren arabera muga ezartzearena erregekin egin behar dute. Fazeriak inoiz ez du mugarik izan,azienda egunez bakarrik uzten ahal zenez, ezin zen oso urruti eraman, bertzela gauean harrapatuko zen. Kanpokoazienda ezin zen sartu ezta borda berririk eraiki ere, gehiegi zeudelako. Bertzaldetik Korteetan arazoak konpontzeko ordezkari izendatzen baziren, ez zen deus

konponduko, Baztan eta Baigorri ibarren artean gertatu zen bezala. Konpontzeko onena aintzinako hitzarmenak jarraitzea zen.

Aetzek garaztarrei proposamen bat bidali zieten, baina erantzuna eraso bat izan zen, ekainaren lauan garaztarrek 150 behi harrapatuz. Aetzen erantzuna 120 behi harrapatzea izan zen. Ekainaren 9an ehun garaztar armaturik 200 behor eta ardi anitz berriz hartu zituzten. Aziendarekin etxera itzultzen zirelarik, aetz batek tiro bat bota zuen, harriskua sortuz, baina ez zen gehiago gertatu. Egoera baretu zen. Konbentziona gerra piztu arte, behin bakarrik aita dezakegu arazoren bat. 1766an aetzek txosten bat prestatuko dute, nozitzen ari zirenak Erretordeari jakinarazteko.

Aurretik, 1757.eko Nafarroako Korteetan, Aezkoaren bi berri ditugu. Batetik Donibaneko komandanteari, Lalana Baroiari baimena emanen zaio berak Aezkoan erosi dituen 50 robo garagar Erreinetik ateratzeko, harreman onak zirela adieraziz. Urrian, Baztan eta Erroibarrekin batera, hiru ibarrek txosten bat aurkeztuko dute, Aldude aldera jasaten ari ziren ilegaltasunak salatzen. Erraten da baigorritar zein garaztarrak azienda baimenik gabe muga pasatzen zutela, 4 legua baino gehiago sartuz, eta etxe eta bordak eraikitzen ari zirela. Txosten hau ziur aski da 1761.ean Nafarroako Diputazioak erregeari bidali ziona.³³

III. 9. 1785eko Garaziko Txostena

Garazik txosten luzea aurkeztuko du. Nafarroako Erretordearendako bide zen. 2 Estatuek haien muga zehazki ezartzea erabaki zutenez, zurrumurrua zabaldu zen fazeriak deseginen zirela. Agian, horregatik idatzi zuten txostena. Garaztarrek Garazi-Aezkoa eta Garazi-Zaraitzu fazerien beharra komentatzen dute.³⁴ Garaztarrek fazeriak mantentzearen alde daude. Horretarako fazerien historia laburbilduko dute. Aezkoari dagokionez, 1556, 1568, 1609, 1618, 1715, 1751 eta 1759ko hitzarmenak aitatuko dira eta ibarren arteko muga errekonozimendu zaharrak, 1445 eta 1507koa: «todos relativos à las Facerias, ò à la compascuidad de las Montañas y confirmativos de los antiguos limites fixados en 1445 y 1507». Nafarroa Garaiko konkistaren erreferentzia dago. Garaztarrak harro daude bere erregearekin geratu zirelako:

El desmantelamiento de la Navarra en nada cambio los tratados, hechos entre los Valles, que se hicieron Españoles, y los que tubieron la felicidad de mantenerse fieles bajo la dominación de su Principe. Estos tratados no estubieron menos en ejecucion despues de la conquista....

Hegoaldean Ornano militarra muga markatzen ari zen, eta idurikoz ez zitzaion gehiegi gustatu Behenafarroako Parlamentuari, eta horrela 1786an Paben Parlamentuak erranen du ezarritako mugarriak nahikoak zirela jakiteko muga non zegoen. Mugarriak hiru lerrotan iminita ziren, agian fazeriaren hedadura markatzeko:³⁵

pero ya que no hay títulos de propiedad entre el Valle de Aezcoa y el Pays de Cize, ¿no había acaso monumentos dignos de respeto por su antigüedad? Tres cadenas de mojones se encuentran en las montañas y parten todas del mismo punto: el mojón denominado Bentarte, despues se separan... una de ellas forma una linea indicada en el acta de la faceria de 1556...

Garai berean, Aezkoak Erregeari txosten bat bidaliko dio. Aezkoak erraten du nekatuta dagoela garaztarren portaeraz. Azken mendean haiekin arazo dexente izan dute, eta hasierako

baldintzak erabat aldatu dira, esaterako jende kopuruan. Horregatik Aezkoak fazeria disolbitu nahi du:

La desigualdad enorme á que ha llegado entre las tres Comunidades asociadas el numero de sus respectivos gozantes de los terrenos comunicado... le suplica rendidamente se digne proteger con sus poderosos oficios, y autorizada representacion la causa del suplicante sobre su deseada disolucion de la Faceria...

1785ko muga trazaketan zenbait interes nahastu ziren. Batzuetarako Frantziako ordezkarien nahia zen Baigorrirentako ahalik eta eremu gehien lortzea, baita Ondarrola herria ere, (edo Luzaiden auzoa), eta horren truke, beharrezkoa bazen Irati zati bat uztea, Zaraitzuek probetxurako. Eztabaidetan bi eremu berri agertu ziren. Mendi puntak mugatzat hartzen bazen, Urkulu ondoko eremua, Aezkoarena, eta Ori mendiko ekialdeko magala, Betzula, Erronkariena, Iparraldeko ibarren esku pasako lirateke.

1785ko muga trazaketan ikusten da Estatuaren iritzia eta nahia sartzen hasten dela, ibarren eskubideak baztertuz. Kaltetuenak Baztan, Erroibar, Aezkoa eta Erronkari ateratzen ziren:³⁶

por la que perderá el Valle de Aézcoa el terreno equivalente a un millón y medio de toesas cuadradas, que posee con justos títulos... se conservarán al Valle de Cisa los prados de Archilondo, que están comprendidos entre la línea divisoria, las cumbres de Bachamberro y de Urecilo Alto, y la regata de Sagaceta hasta el collado de Erosate. Estos prados podrán contener unos tres millones de toesas cuadradas y por los restantes que pierde se le cederán los que deja el Valle de Aézcoa... Los pastores de Cisa que se establezcan en Archilondo, lo deberán hacer lo más inmediato que se pueda a la línea divisoria, y estarán sujetos a la justicia de España...

Konbentziora gerragatik, (1793-95), bertan behera utzi zen muga trazaketa. 1800.ean eztabaidak berpiztu ziren, batipat Baigorri auzokideekin. 1800-XII-28an hegoaldeko ibar eta herriek, (Baztan, Erroibar, Luzaide, Orreaga, Auritz eta Aezkoa), erregeari eskutitz bat bidaliko diote, Baigorri eta Garaziren ilegaltasunak salatzearen. Artea aipatzen da baigorritarrek, Aezkoako mendizainak erasotu zituztela.³⁷ 1808an Gerra Napoleoniarrak hasi ziren baina ez dago deus gertatuko 1818. urte arte. Aipatzekoa da, Orbaizetako Olan zegoen frantses tropak behin bederen, 1812an, aetzei lagundu zela Garaziko azienda ilegala harrapatzeko. Gerra akabatu ondoren, oroitu behar da zenbait fazeria desegitearen alde agertu zirela, eta horretarako saiateren hasi zen, burutu ez bazen ere.³⁸

(I). Aezkoa ibarreko kontuak. 1796-1819

Udalen kontuak berri iturri aberasgarria da. Horregatik sondeo bat egin dugu 1796-1855 urte artean, Aezkoako Juntaren kontuetan. 3 gai hartu ditugu: inguruko ibarren arteko harremanak, mugak eta fazeria. Ez dugu gauza handirik aurkitu, baina bai zenbait gertakizun interesgarri ikerketa osatzeko.³⁹

1798. Garaztarrei zenbait azienda harrapaketa eginen zaizkie, gero isuna ordainduz./ Azienda harrapaketak garaztar eta zaraitzuarrei.

1800. Azienda harrapaketa batzuk garaztar, zaraitzuar eta baigorritarrei.

1801. Garazikoekin muga errekonozimendua, 3 mugarri txikituta agertu baitira./ Zenbait azienda harrapaketa garaztarrei

1802. Juntak garaztar bati ordainduko dio 3 mugarrien lekua markatzeagatik. / Azienda harrapaketak garaztarrei.

1803. Garaziri azienda harrapaketa.
1804. Garaziri azienda harrapaketa. Azienda dexente jaberik gabe ere aurkitu da .
1805. Auritzekin muga errekonozimendua ./ Azienda harrapaketa garaztar eta Orreagakoei.
1806. Orreagako Tapia kanonigoari ordaindu zaio, ibarren erreklamazioak prestatu dituelako, Erroibar, Luzaide, Orreaga, Auritz eta Aezkoak Baigorri eta Garazikin dauden zenbait mugari txikituta agertu baitira./ Auritz eta Orreagakin muga errekonozimendua./ Baigorriko azienda harrapaketa.
1810. Garralda eta Ariakin dagoen mugaren errekonozimendua .
1812. Olan dauden zenbait soldadu frantseei ordainduko zaie, Garaziko abere batzuk harrapatzen laguntza emateagatik.
1814. Abodin Zaraitzuzkin bilera dago, baina zaraitzuarrak ez dira agertuko, 5 egun goizago biltzekoak ziren eta aetzak ez baitziren izan.
1815. Kalteagatik 4 juntakideei ordainduko zaie. Zaraitzuko idazkariak lauak Abodin detenitu ditu eta preso izan dira./Zaraitzuren muga errekonozituko da, Erronkariko idazkaria lekuko izan delarik./ Garralda eta Ariakin dagoen muga errekonozimendua.
1816. 300 aetz eta garaztar Bortuetara aterako dira hartzak chizatzerak/ Idazkariari ordainduko zaio, Erret Artxibategian Irati jabetasunaz dokumentuak bilatzen joateko, Zaraitzuekin dagoen auzia argitzearren.
1817. Ibarreko Alkateak bi ordezkarietara pasaportea eginen die Garaziko herrietan mugari buruzko dokumentazioa aurkitzeko.
- 1818-VII. Garazikin bilera bat Iruburietan, azken boladako azienda harrapaketaz elekatzeko.
- 1819-VII. 5/6 Gauaz, garaztarrek armatuta Orion, Ambulolaz eta Sobarretik 223 behi aetzei hartu dizkiete. / Aezkoako alkatea Baztanera joan da, 161 lean Arnegiko bileraren dokumentazioa aurkitzeko. Ez du aurkituko.

1818-19an aetzek garaztarren azienda anitz harrapatu zuten. Bi aldeek isunak eta ordainketak negoziatu zituzten. Aetzek zerrenda bat eginen dute eta Garaziko alkateak onartu zuten baina gero bertze zerrenda bat Garazitik bidaliko da, anitz gehiagoarekin.⁴⁰

	Alkateek onartuta		Bidalita *		Alkaeek onartua*		Bidalita*	
Aintzile	30		34	50	Lakarra	47		47
Alziete-Baskaran	32		26	50	Mendibe	72	50	72
Ainiza-Moñolose	30		30		Uharte	6		-
Arnegi	138		103	10	Sarasketa	49	75	49 75
Buztintze Hiriberri	53		63		Zaro	108		93 50
Donezaharre	38	25	191		Azienda zainketa**	-		60
Donibane Garazi	53		-		Maulenekoa **	-		10
Ehialarre	53		32		Informazioa **	-		3 60
Gamarte	41	50	41	50	Belarra, buruko **	-		100
Izpura	53		54		GASTUAK	-		173 60
Jatsu	559	50	559	50	ESKATUTA ***	1.447	10	1.638 14

* Libera eta zentimotan.

** «Frais de garde / Exprès à Mauleón / Frais de procès Verbal / Frais de paccages à 10 par tête par jour.»

*** Bidalitako txostenean gastuak kontutan hartu gabe.

III. 10. 1820.ekoa, hitzarmen eztabaidatsua

Puertos Grandes de Aezcoa se llaman los comunes que tiene el cuerpo del Valle en los Pirineos... de todos los Pueblos se envia mucho ganado de toda especie à pacer en Primavera, Verano y Otoño; y aun en Invierno siempre que permita el tiempo... Tambien los Franceses, y aun del interior suben mucho ganado al Pirineo propio y por quanto es estilo qe de dia puedan libremente sin coste estar y pacer en lo de España, y esta parte meridional siendo mucho mejor para el ganado... gozan las yervas y aguas de dichos Puertos grandes tanto ò mas que los de Aezcoa... En verano, pues se mantiene como el numero de 4.200 de ganado lanar forastero, y todo el ganado propio del mismo valle...

Nafarroako estadistika, 1817⁴¹

1819an garaztarrek 222 behi eta zaldi harrapatuko dituzte, aetzek errekuiperatzeko dirua ordaindu behar izan zutelarik. Salatu arren, ez dute dirua errekuiperatzeko. 1821ean, 1820ko hitzarmenaz eztabaidatuko da. Orain lehenbiziko aldiz 2 Estatuek parte hartuko dute fazeriaren hitzarmenean. Espainia eta Frantzia Estatuko 2 ordezkari, Paue eta Iruñekoa, bildu ziren hitzarmen bat lortzeko. Horri esker, garaztarrek baldintza berri bat sartu zuten, azienda larria gauean ere bazkalekuetan uztea. Aintzinean, oztopo nagusia horixe izanen da. Aetzak ados ez zeudenez, erabaki zen ibar bakoitzetik 4 zaharren deklarazioa izatea jakiteko ohitura zen edo asmakizuna. Ez dakigu erantzuna baina Garazik badaezpada baldintza berria indarrean azkar imini zuen, enfrentamenduak piztuz. Liskar gogorrek ere izan ziren, guztiak 1824an.⁴²

(II) Aezkoa Ibarreko kontuak. 1820-1828

1820. Bortu Handien mapa kopiatzeagatik Ariako eskultoreari, Domingo Girodiri, ordainduko zaio./ Juntaren izenean Ilintxeta abokatua Baztanera joanen da zenbait hitzarmen ikusteko asmoz.⁴³/ Aezkoako idazkaria Iruñeko Artxibategira joanen da, Bortuei buruzko txostenak ikusteko./ Garazikoei fazeriagatik zenbait diru kobratuko zaie. Nahiko gutxi bertze urteekin konparatuz./ V-20/21. Junta osoa Bortuetara igoko da, garaztarrak sar ez daitezten./ VI-5. Junta Garazikoekin Orbaizetan bilduko dira, hitzarmena betetzearen ezaz elekatzeko./ VIII. Bilera bat Bortuetan./ Bilera zaraitzuekin Abodin, mugaz elekatzeko./ Juntak Urtxiloa lekura 3 zahar eramanez ditu, Aezkoa ibarrarena dela bertan bermatzearen.
1821. Garazikin muga errekonozimendua./ V-12. Aetzak Iriburietan bilerara agertu dira, Garaztarrak ez. Ekainaren 26ean burutu zen.
- 1823-VI. Zenbait lagunei ordainduko zaie muga zaintzeko, garaztarrek azienda sar ez dezaten./ Soka txiki anitz Donibanen erosiko dira, Iruñeko sitorako: «para liar Espadas, bayonetas y lanzas para el sitio de Pamplona». / XI. Auritz eta Orreagakoekin muga errekonozimendua. Badriagainatik Bortuetaraino./ Jendea 2 egun arituko da Bortuetan, hartzak ehizatze. (gastuak ikusita, jende dexente izan zen)./ 32 aetz ordainduta izanen dira, Bortuetan azienda harrapaketa egiteko.
1824. Garaziko zenbait azienda harrapatuko da. / Aezkoako 3 ordezkari 21 egun arituko dira, Garazik harturiko azienda errekuiperatzeko asmoz./ Auritz eta Orreagakin muga errekonozimendua./ Diru anitz gastatuko da, ia presupuestoaren %15a, Garazikoekin izaniko istiluetan: Ibar zein Iruñeko ordezkariak, lekukoak, mendizainak...
1825. Olako zuzendariak 6 aetzei ordainduko die, Bortuetan Hiriberriko Jakuek eta Orbaizetako

- Aspiltzek eginiko bordak txikitzearren./ Garaziko zenbaiti fazeriagatik dirua kobratuko zaie. (Ez da gehiegi) ./ Garraldarrek Garaziko azienda batzuk harrapatuko dituzte Bortuetan.
1826. Garaziko zenbaiti fazeriagatik kobratuko zaie, 1825ean baino bikoitza lortuz./ Garaztar bati Aezkoarendako konfidente izateagatik ordainduko zaio./ Zaraitzuarekin hasitako auziagatik gastu batzuk daude: abokatuak... Auzia Zabaleta eta *La Cuestion* lurren jabetasunaz da./ Garazirekin dagoen muga marrazkiaren kopia eginen da./ Zenbait lagun Bortuetan arituko dira, seinale eta makilen bidez fazeriaren hegoaldeko muga markatuz./ Ordezkarri batzuk Zabaletara joanen dira, Otsagiko mendizainarekin elekatzeko./ Juntakide guztiak egun batez Bortuetan dira, Garaziko artzainekin elekatzeko./ Ibarreko ordezkariak Iruñera joan dira, Erretordeari garraztarren mehatxuak jakinarazteko./ Garaziko lekuko batzuei belarraren bidez ordainduko zaie./ VIII - 6/7/8. Juntakideak eta mendizainak Bortuetan, azienda kontaketa eta harrapaketak eginen dituzte./ Orbaizetako juntakideari Garazira enkarguak egitera joateagatik ordainduko zaio./ Zenbait ordezkariet ordainduko zaie, Garazikoekin eginiko bileran parte hartzeagatik.
1827. Garaztar batzuk berriz fazeriagatik ordainduko dute, (diruaren arabera ez dira gehiegi)/ III-4. 2 Abaurreko regidoreei Garaziko artzainen erasoak izaniko kalteagatik ordainduko zaie./ Iruñera ordezkari bat bidaliko da eskutitz batzuekin, Garaztarren erasoak azaltzearren./ Garaztarrek Bortuetan detenitutako aetzei ordainduko zaie, izaniko kalteagatik. (Donapaleun izan ziren preso)/ Diru dexente gastatuko da, azienda, jende erreskateak eta kalteak ordaintzeko./ Garraztarren azienda batzuk harrapatuko dira./ Orbaizetako juntakideari zenbait lan Garazin egiteagatik ordainduko zaio.
1828. Fazeriagatik, zenbait garaztarrek ordainduko dute, oso gutxi./ Auzi bat dago, Aezkoak Zaraitzuaren mendizainaren kontra.Orbarako bati ordainduko zaio Garazin lekuko bat bilatzeagatik, Zaraitzuaren kontrako auzitarako./ V-30. Bortuetan Garaioar bat zauritu dute./ Azienda harrapaketa egiteko asmoz, Juntakideak Bortuetara egun batez aterako dira./ Zaraitzuaren kontrako auzian lekuko izateagatik, Orotz Beteluko bat eta garaztar bati ordainduko zaie./ VIII-15. Ordainketa batzuk, Bortuetan garaztarren atzetik ibiltzeagatik./ Auritz eta Orreagakoeekin muga errekonozimendua ./ Detentzioak eta txostenagatik ordainduko da. Erriberako batzuk Bortuetan Garaziko 3 zaldi ebatsi dituzte eta detentitu dituzte./ Erretordearen ordezkariari ordainduko zaio. Aezkoan izan da, harrapaketak non burutu diren jakitearren./ Juntakideei ordainduko zaie, Bortuetan zainketak egiten 6 eta 14 egunen artean izan baitira,haiek eta 40 aetz./ Zaraitzuaren auzia dela eta, Ilintxeta abokatuari, Ibarreko ordezkaria izateagatik ordainduko zaio./ Orbarako behortzainari eta Abaurrepeko zenbaiti, Garaziko azienda harrapatuta zaintzeagatik ordainduko zaie./ Orbarako Etxeberrii zenbait enkargu Garazin egiteagatik ordainduko zaio./ Juntakideei lau gau Bortuetan pasatzeagatik ordainduko zaie./ Abaurrepeko bati preso dagoen Zaraitzuko mendizaina zaintzeagatik eta Ibarreko idazkariari detentzioaren txostenagatik ordainduko zaie. Zaraitzurra detentitua izan bide zen Garaioako zerrizaina kolpatu zuelako./ Atal batean erraten da Garaziko 225 zaldi eta behi harrapatu direla.

III. 11. Aezkoa. 1824 eta 1827ko datuak

1824ko gastuen txostena.- Garazikoekin izaniko arazoak direla eta, 1824ko gastuen txosten bat dugu. Gerra Errealistak bukatu berri dira eta Aezkoak azienda anitz galdu du. 1820ko fazeria hitzarmenagatik, garaztarrek eskubide guztiak hartu nahi zituzten eta aetzak ez zeuden prest. Tentsioa nabarmena da uda aldean, eta ondorioz Aezkoak Bortuetan

mendizainak imini zituen.⁴⁴ Ibarreko presupuestoa baino ia bost aldiz gehiago gastatu zen urte hartan. Gertakizun batzuen berri dugu:⁴⁵

V-23. Bortuetan Aezkoako Juntak 20 mendizain imini zituen, garaztarrek azienda ez sartzeko. Junta osoa Bortuetan izan zen mendizainei mugariak erakutsiz.

VI. Hilabete osoa Bortuetan 30 mendizain arituko dira.

VI-11. 38 garaztar armaturik Menacetacolarreburuko pagoetan izkutatu ziren, mendizain aetzak erasotu nahian. Juntak berri izatean, 100 gizon armatuekin Bortuetara igo zen, enfrentamendua sortuz. Abaurregaineko bat tiroz zauritu zen, eta garaztarrek lainoari esker Soroluze aldera ihes egitea lortu zuten. Orbarako regidoreak garaztar bat zauri bat eskuan zuela aurkitu eta zaindu egin zuten.

VI-29/ 30. Iruñean berri eman ondoren, komisario bat heldu zen gertatutakoa jakiteko, eta 30ean Bortuetara igoko da 112 lekukoekin.

VII. Hilabete osoa Bortuetan 15 mendizain izanen dira.

VIII. Hilabete osoa 10 mendizain Bortuetan.

VIII-4. Arazoak konpontzearren Ibarren mugan bildu ziren. Aetzak 1556ko hitzarmena erakutsi arren, ez ziren ados imini.

VIII-11. Bortuetan Garaztarrek aetzei 400 behor hartuko dizkiete. 15 egun izan ziren Ehialarren, eskatutako dirua ordaindu arte.

VIII-24. Juntak igandean bilduko da, herriek galdutakoa jakiteko. Adibide gisa, Garaioakoek behorrez komentatzen dutena, «Regula por lo que relaciona despoxtadas las clines,y colas desfigurandolas enteramente. Muerte, y aborto de algunas, y varias enfermas...».

IX-9/11. 93 aetzak Garaziko azienda harrapatu zuten. Urriaren 2ak arte Abaurregainan gorde zen.

IX -1 letatik aintzina. Errepresalien beldur, Aezkoak Bortuetan 19 mendizain imini zituen.

1827ko maiatzean Aezkoakoazienda harrapatua.⁴⁶ Zehazki dakizkigun bakarrak dira, kuadro batean laburbilduta. Gero Orbarako 8 behi gaineratuko dira.

	Idiak	Behiak	Aretxeak	Bigaiak	Zaldiak	Behorrak	Behokak	
Abaurrepea	13	13	8	13	0	0	0	47
Aribe	34	11	5	4	0	0	0	54
Garralda	0	25	24	0	0	0	0	49
Orbaizeta	70	64	0	0	1	38	29	202
	117	113	37	17	1	38	29	352

III. 11. 1829ko Arnegiko hitzarmena

Aipamen bat dugu 1840ko txostenean. Bitartekari lana egiteko 2 Estatuak aritu ziren. Aezkoak 1715ko dokumentua aurkitu du, eta horri esker, 1820ko puntu berria, azienda larrienarena, asmakizun bat dela bermatu zuen. Garaziko alkateak, Salaberik 1820koa defenditzen jarraituko du, baina dokumentua ikustean onartuko du: «no pudo menos que explicarse en estas formales palabras “cuando hay documentos yo callo”...». Ibarra ikerleak urte hontako gertakizun bat komentatzen digu. Abuztuaren 19an luzaidarrek jakin zuten baigorritarrek Alduiden eta garaztarrek Aezkoan sartzea erabaki zutela. Abisua Auritzen zegoen Eraso komandanteari eman zioten, beharrezko prestaketak egin zetan.⁴⁷

(III) Ibarreko kontuak. 1829-1833

1829. Bi Gobernuen ordezkariak ordainduko zaie./ Ibarreko herriekin dagoen muga Juntak herri ordezkariekin ikustatuko du./ Garaztarrek detenitutako 6 aetzi ordainduko zaie izaniko kalteagatik. Bortuetan garaztarrek erasotu zuten, aetzak detentitu eta Donapaleura eraman zituzten, zenbat hilabete izan zirelarik./ Zenbait aetzi Garaziko borda bat txikitzeagatik ordainduko zaie./ Mendizainak Bortuetan gastatutako polboragatik ordainduko zaie./ VIII-2/3. Bortuetan azienda harrapaketak egiten gastatutako ogi, ardo eta zahato batengatik ordainduko da./ Berriz Bortuetan edaniko ardo aipatzen da, neurri handi batean, 26 kantaro gastatu baitziren. (Cántaro bat=11'77 litro)/ Mendi zesioa dela eta, Ilintxeta abokatuari ordainduko zaio Madrilen eginiko lanagatik./ Juntakideak Bortuetan./ Juntakideei Arnegiko hitzarmenetan izateagatik ordainduko zaie./ Ilintxetari, zenbait txosten prestatzeagatik, Zaraitzu zein Garaziko auzietan. (Ia presupuestoaren %15a kobratuko du).
1830. Fazeriagatik garaztar batzuei kobratuko zaie./ Garaztarren erasoaren kontra aritzeko 30 libra polbora. Bertze atal batean 12 libra polbora, 300 bala, ogi eta ardoagatik ordainduko da, baita 2 konfidenteei ere. (?)/ Juntakideak egun batez Bortuetan./ Batzuei egun batez kartutxoak egiteagatik./ Fusil zama batzuk Iruñetik ekarri eta gero Eskarozera eramateagatik ordaindu zen.⁴⁸
1831. Aezkoako mendietan etxeak eta hertsiei buruzko txosten batzuk Madrilerara bidaliko dira./ Erretordearen bisita, Aezkoa eta Olara.
1832. Iruñera ordezkariak joan dira, zaraitzuarrek Maurulanda eta Zabaletan Hiriberriko azienda eraman dutelako./ Garaztarrek erasotuko dutelakoan, Aezkoak 13 kaxa giltzadun erosi ditu, Auritz partiduaren artxibategia gordetzearren.

III.12. 1833.eko fazeriari buruzko bilera Garazin

Aetzak kexu dira garaztarrek 1820ko hitzarmena bakarrik jarraitzen dutelako eta ez 1715ekoa. Auzian, Estatu Espainolak Auritzen «cordón sanitario»-ko arduraduna zen Eraso koronela bitartekari izendatu zuen, eta Aezkoak Illincheta abokatua izendatu zuen. Illintxetak Donibanen 1833-VI-25an bilera izan ondoren, zera komentatuko du.⁴⁹ Garazikoek fazeriaz aparte, azientarako Aezkoako bertze larre, soro eta lur landuak erabiltzen dituzte. Azienda handiko 1.500 buru dituzte Aezkoako mendietan artzainik gabe. Gainera kanpoko azienda agiri faltasuen bidez sartzen dute. Garaztar adiskide batzuen bidez hori jakin dute, «ganados agenos de todas clases como propios, bajo contratos simulados... que en el dia existe mas que nunca, segun declaracion confidencial de personas de caracter, y muy fidedignas del mismo San Juan de Pie de Puerto» Bileran Mauleko Suprefekta harritu zen garaztarren portaeraz baina onartu zuen gutxi egin zezakela. Garaziko epailea, Ibarnegaraik erantzungo du 1820koak 1715ekoa balio gabe uzten zuela. Aetzen ustez Ibarnegarai kontra dago jauntxo handienetariko bat delako eta bere maizterren azienda Aezkoan ibiltzen delako. Salaberiren jokaera ere salatzen da:

es un propietario de los mas fuertes; que mucho de sus inquilinos mantiene sus bacas en los Puertos de Aezcoa y que por esta causa le pagan rentas mas subidas... son temibles los amaños del Alcalde Salaberí, que parece se interesa en un tanto de lo que pagan los franceses en la subida de sus ganados á los Puertos, por razon de su empleo...

Ez zen deus sinatu. Erasok irailean Aezkoako alkateari abisua bidaliko dio Madrileko Cea

Bermudez ministroak Frantziako enbajadorearekin akordio bat sinatu duela, garaztarren iritzia onartuz, bada, gauean ereazienda sar dezakete. Eraso ados ez badago ere, agindua bete araziko duela abisatuko du. Garaztarrek hitzarmena ezagututa, Aezkoanazienda sartu, egurra ebaki eta txabolak egiten hasiko dira. Eraso bitartean, Auritzen altxatu eta karlistada hasi zen. Beranduago, aetzek ikusi zuten nola diru truke karlistek Garazikoazienda sartzten uzten zutela. Ondorioz, Aezkoak kobratzea erabakiko du.

1840an erraten da 1788an Ventura Caro militarra muga markatzen izan zenean aetzei Bortuen kontrol eza egotzi ziela. Muga ondoan, Aezkoanborda bat bakarrik ikusi zuen bitartean, Garazi aldera borda anitz eta etxeak ere bazeuden. Aetzei erran zien Bortuetan gauza bera egin behar zutela. Caroren ideia bertan behera utzi zen gerragatik eta Gerra Napoleoniarraren garaian hiruzpalau borda eraiki ziren, baina gerra bukatzean Orbaizetako Olako zuzendariak desegiteko agindu zuen. Arazoa 1831ean berriz aurkitzen dugu. Orbaizetako 2 barridek etxeak eta aterpe batzuk eraikitzeke baimena eskatuko dute Olako mendietan, Liliduya, Dopyl eta Larraunen. Orbaizetatik Olara 3/4 ordu zegoen eta mugaraino gehiago, eta guztiendako ona litzateke: ejerzitoarendako, bidaiariendako, Bortuak zaintzeko eta ebasketa aldentzeko, azken boladan zenbait ebasle Arrataka inguruan ibiltzen baitziren. Gainera eraikitzean, bermatzen zen Aezkoarena zela.⁵⁰

(IV) Ibarreko kontuak. 1833-1839

1833-34.- Garaztar batzuk fazeriagatik ordainduko dute, gutxi./ Ola aldera iskanbila sortu da garaztar eta aetzen artean. 3 aetz eta garaztarrei eginiko zaurien osaketa ordaindu zieten./ Aribeko tabernoari 3 aetz detenuak zaintzeagatik./ Berrendipean zenbait mugarri aldatuko dira./ Garazikoei zenbaitazienda harrapatuko zaie eta etxolak egitea debekatuko zaie: «proivicion de hechola en los puertos».

1836. Abodin Otsagikoazienda harrapaketa.

1837. Bortuetan Garazikoazienda harrapaketa.

1838. Fazeriagatik garaztar batzuk ordainduko dute. (gutxi)

1839. Fazeriagatik garaztar batzuk ordainduko dute, (38koa baino pittin bat gehiago). Garazikoazienda harrapaketa.

III. 13. 1840.eko fazeriari buruzko txostenak

Aezkoa Ibarreko artxibategiko zenbait txostenetatik aterata dago. Bertze txosten parekoa Yanguasen hiztegian dago. Orbaizetako Ola eta fazeria agertzen dira. Gu artxibategian aurkitua komentatuko dugu. Gerra pasatu da. Juntak txostena prestatu du Frantzia Estatuko arduradunari bidaltzeko, egoera ezagutu dezan. Aetzendako Aezkoa gutxi garatu den bitartean Garazik, klimagatik eta beharbada langileagoak direlako, garapen handiagoa izan du, hola proportzioa desorekatu da. Aspalditik, Garazi hiriak 400 sutondo eta Aezkoak 300 zituen. Oreka erabat aldatu da:

los cisanos favorecidos por la benignidad de su clima... y tal vez mas industriales, redujeron à cultivo muchos trozos de terreno, sugeto à la comunidad de pastos con Aezcoa, estableciendo casas con permanencia de las familias. y con praderas destinadas para heno, que sirve à la manutencion de sus ganados en tiempo de Invierno, adquiriendo por este medio un gran movimiento en la

poblacion, en los productos de la tierra y en los ganados de todas clases; y por manera que en 1750 se calculaban los fuegos de Cisa en 2.500 y no será extraño que su numero en el dia à mas de 5000 lebantando cubiertos para el ganado en la misma linea de 1556 proporcionandole la primera salida à los pastos de Aezcoa, que disfrutan mas que sus naturales y haciendo esclusivamente suyos los propios de que apenas no se utilizan los aezcoanos propasandose à construir Bordas ò corrales en lo de Aezcoa y obligando à este Valle à que los destruya ò los incendie, como lo executa con frecuencia...

Garazin presio demografikoa handiagoa da, ondorioz Alduden gertatu zen bezala, presioa mendietara eramanez dute, lur gehiago lortzearen. Aetzaz zera erraten da:

los Aezcoanos al contrario, menos afortunados en la calidad de su terreno frio y esteril, y muy espuesto à grandes nieves se han contentado y se contentan con que los particulares de los Pueblos mas vecinos desde sus casas exerzan una cultura debil y poco productiva en la parte meridional de sus Puertos, y principalmente en Navala y Sarriozar, siendo tal vez uno de los fuertes obstaculos que se han opuesto al establecimiento de familias en estos sitios, la imposibilidad de concurrir en los malos temporales à la celebracion de los oficios divinos de sus distantes Parroquias, en lo que no son tan reparados los franceses fronterizos...

1841ean Olako zuzendariak Aezkoa salatuko du, fazeria kobratzeagatik. 1843an Artilleria epaitegiak erabakiko du Aezkoako Bortuak Olarenak direla eta aetzek ezin dutela fazeriagatik kobratu. Erreklamazioa egin ondoren, konponketa bat egin zen, eta aintzinean Olari kobratutako erdia emanen zaio. Mendi zesioaren txostenetan gaineratzen da garaztarrei baimena eman zaiela gauean azienda uzteko, eta horren truke kobratzen dutela. 1846an Ola eta Aezkoaren artean eztabaida mantentzen da, Ibarreko alkatea Illintxeta abokatuarekin berriz Olan dugu zuzendariarekin eztabaidatzen, fazeriagatik kobratutako erdia Olak har ez dezan. 1842an Aezkoari mendi zesioaren bertan behera uzteko eskaera ukatu zaio. Garaziko azienda eta fazeria dela eta, Olako zuzendariarekin arazoak daude, eta arazoak ez areagotzeko, Aezkoak garaztarrei azienda gauean uzteagatik zerbait kobratzen die, irabazitako dirua olarekin banatuz. Urte berean 20 abeltzain garaztarrei azienda harrapatuko zaie: 102 behi, 8 aretxe eta 4 behor.⁵¹

(V) Ibarreko kontuak. 1840-1844

- 1840. Fazeriagatik garaztar batzuk ordainduko dute. (39aren erdia baino gutxiago).
- 1841. Fazeriagatik garaztarrek ordainduko dute, Urteko presupuestoaren %18a / Garaziko azienda harrapaketa.
- 1842. Fazeriagatik garaztarrek ordainduko dute, presupuestoaren %16a./ Garaziko azienda harrapaketa./ Bazkatzeagatik Luzaidar batzuei kobratuko zaie./ 18 aetzei Bortuen errekonozimenduagatik ordainduko zaie./ Zenbait lagun Bortuetara joateateagatik.
- 1843. Bortu mugarren errekonozimendua./ Artilleria Epaitegiak Aezkoari isuna ezarriko dio, Bortuko belarra kobratzeagatik. Arrazoia Olarena dela erraten da./ Aezkoak Artilleriari fazeriagatik lorturiko erdia emanen dio.

III. 14. 1844 eta 1849.eko hitzarmenak

1844-VI-5ean Aezkoak berriz salatuko du garaztarrek ez dutela gauean azienda ateratzen. Bakoitzetatik 4 ordezkari azalduko dira mugan eta baldintzen arabera erraten ahal dugu

lehenbiziko akordio modernoa dela, egun dagoenarekin parekatuz berdintsua baita. Hona atal nagusiak.⁵²

- 1 - Azienda larrian, Garazik 800 buru sartzen ahal ditu . Bertzela isunak ezarriko dira.
- 2 - Aezkoako fazeriak betiko eremua izanen du: ibarretako muga eta Nabala, Sariozar, Azalegi eta Abodi. Fazeriatik kanpo ateratzen bada, fazeriara bueltatuko da. Aezkoak mendizain bat iminiko du azienda zaintzeko, 2 ibarren artean aukeratuko da eta Garazik soldata ordainduko dio.
- 3 - Aipaturiko bazkaleku eta mendien jabe bakarra Aezkoa ibarra da .
- 4 - Garazik 800 buruagatik 3.900 erreal 2 epetan ordainduko ditu, Uztailearen batean eta Urriaren batean.
- 5 - Garazik nahi adina artzain izanen ditu eta kalteturiko soroak ordainduko ditu.
- 6 - Azienda xehea, Garazi zein Aezkoakoa, ezin da gauean bazkalekuetan utzi, bertzela har daiteke.
- 7 - Kanpoko azienda harrapatzen bada artzainak buru bakoitzeko 10 ptako isuna ordainduko du, ibarrendako erdibana. Harrapaketak Aezkoa bakarrik edo Garazi laguntzarekin burutuko dira.
- 8 - Aezkoako azienda bere mendietan libre ibiliko da.
- 9 - Hitzarmena 4 urterako da. 6 hilabete bukatu baino lehen salaketarik ezean berriz indarrean jarriko da 4 urterako.

1849ko hitzarmenaz gauza gutxi aipa daiteke. Baldintza berriak bi aldeek ongi bete zituzten, eta horrela 1844ko hitzarmena berriz indarrean iminiko da. Bilera mugan izan zen, 1849-VI-15ean.⁵³

(Eta VI) Ibarreko kontuak 1844-1855

1844. Fazeriagatik garaztarren ordainketa, Ibarreko presupuestoaren %6a./ Garazi eta zaraitzuarren azienda harrapaketa./ Fazeria hitzarmenean izan ziren ordezkariak ordainduko zaie./ Auritz mugaren errekonozimendua .
1845. Ibarreko ordezkaria, Illintxeta Madrilen izanen da, Mendi zesioa desegiteko asmoz. Ia Juntako presupuestoaren %10a kobratuko du./ 2 egun Bortuetan muga errekonozimendua egiten, behin 9 lagun aipatzen da eta bertze atal batean zehaztu gabe zenbait.
1846. Fazeriagatik garaztarrei kobratuko zaie, gutxi./ Abodin zaraitzuarrei azienda harrapatuko zaie./ VI-17. Juntan Illintxetak eginiko lana komentatuko du.
1847. Fazeriagatik garaztarren ordainketa. 1846ko diru parekoa./ Zaraitzuko azienda harrapaketa./ Abodin zaraitzuarrek Hiriberriko zenbait abere harrapatuko dituzte./ Abodin zaraitzuarrekin mugariak ikusten eta hitzarmena berritzen, aurrekoaren epea bukatuta zegoelako.
1848. Fazeriagatik garaztarren ordainketa. Iazkoa baino gutxiago./ Abaurregainan 3 lagun detentatuko dituzte, Garaziko bi behor ebasteagatik. Aezkoak behorrak ordainduko dituzenez, ematen du ebasleak aetzak zirela.
1849. Garaztarrek buru bakoitzeko 2 libera ordainduko dituzte. 1846 eta 1847ko diru parekoa da. Erdia Olari eman zaio./ Zabala ostatuan Arnegiko alkatea eta Ibarreko ordezkariak bilduko dira.⁵⁴
1850. Bazkatzeagatik Arnegikoek iaz ordaindu ez zutena ordainduko dute./ Fazeriagatik garaztarren ordainketa. Erdia Olari eman zaio./ Lasa herriaren azienda batzuk harrapatu dira./ Injenieru batek muga errekonozituko du. Zabala ostatuan izaniko gastuak Juntak ordainduko ditu./ Erroibartarrekin muga errekonozimendua, Txangoan.⁵⁵ / Karabineroek Garaziko azienda Arratakan harrapatuko dute./ Sanz gizonari ordainduko zaio, Garazikin dagoen mugaren planoan egiteagatik.

1851. Muga errekonozimendurako komisionearen gastuak Zabala ostatuari ordaindu zaizkio./ Izugarritzko gastuak Mendi zesioaren auzia hasi delako: lekukoak, abokatuak... Agoitzen eginen da.
1852. Fazeriagatik garaztarren ordainketa, presupuestoaren %26a./ Mugaz gobernadorearekin izaniko bileran, Aezkoak Luzaideko alkateari dagokiona ordainduko dio.
1853. Bazkatzeagatik Luzaideko Arnegizar eta Bartzelona etxeok ordainduko dute./ Fazeriagatik garaztarren ordainketa, presupuestoaren %18a./ Fermin Barberena aetzari ordainduko zaio Irati eta Garazi aldeko mapa egiteagatik.
1854. Bazkatzeagatik Luzaideko Bartzelona eta Arnegizar etxeok ordainduko dute./ Fazeriagatik garaztarren ordainketa, presupuestoaren %25a.
1855. Fazeriagatik garaztarren ordainketa, presupuestoaren %18a./ Bazkatzeagatik Luzaideko Arnegizar etxeok ordainduko dute./ Garaziko azienda markatzeko burdin bat erosiko da.

III. 15. 1856ko muga hitzarmena

1856an Estatuen mugaren hitzarmena sinatuko da. 1854an Aezkoak, Komisioak eskatuta, erantzunen du. Komentarioen artean, Ibarrek erraten du Garaziko bi ordezkari esker, Garazik azkenean onartuko du Aezkoaren iritzia. Arazoa sortuko da azienda larria gabean eraman behar zutelako. Horren truke, Garazik Aezkoari urtero 1.000 libera eskainiko dizkio, eta Aezkoak onartuko du.

Hasta hace ocho años que entraron en la municipalidad de San Juan y Cisa dos personas de instruccion y providad y que no tenian ganados, los cuales en vista de las escrituras se dieron por conocidas y confesaron que tambien el ganado mayor estaba sujeto á la condicion de salir del termino de Aezcoa para de noche... era operacion dificil la de hacer salir del termino de Aezcoa á su ganado mayor esparcido por todos los montes sin pastor que las guarde y que por otra parte esta novedad hacia fuerte impresion a los Cisanos ofrecieron mil francos anuales... Los aezcoanos no pudieron menos que admitir este ofrecimiento porq. de este modo conseguirian el hacerles reconocer que estos términos son de Aezcoa y les escusaban los prendamientos que de noche y á fuerza de gente ejecutaban con riesgo de venir a las manos y dar lugar á vias de hecho al menor descuido...

1856ko muga hitzarmenean Aezkoa-Garazi mugari dagokiona 5. eta 6. ataletan agertzen da:⁵⁶

Artículo 5º. La división internacional desde la confluencia del Erreca-idorra y del Urbelcha, subirá por el curso de éste hasta donde le encuentre la prolongación de la línea de crestas de Aunsbide, seguirá por estas crestas al nacimiento del arroyo Contracharro, y bajando con sus aguas por él y por Ugasaguía entrará tambien en el Egurgoa. Artículo 6º. Partiendo de la confluencia de Ugasaguia y el Egurgoa, los linderos entre ambas naciones, ajustándose al acta de demarcación de términos celebrada en 1556 por los Valles de Aezcoa en España y Cisa en Francia, subirán sucesivamente por los arroyos de Egurgoa, Vagachea ó Igoa y pasando por el sel Eroizate, Arlepoa, Pagartea, Iparraguerre, Zalvetea, Orgambidea, Idopil, Lecea, y Urcullu, llegará al collado de Iriburieta ó Jasladea...

Hitzarmenean, 2 estatuen artean dauden Euskal Herriko fazeria guztiak deseginen dira, 2 ezik, Erronkari-Baretous eta Garazi-Aezkoakoak. Iparraldeko euskaldunak 1785ko hitzarmenaren 4. atalaz probestu ziren. 1858-XII-28an Estatuek hitzarmena berretsi zuten eta gehigarrian fazeriaz atal bat gaineratuko da:⁵⁷

ANEJO III. Relativo á las dos facerías perpétuas que se conservan por el Tratado... Entre Aezcoa y Cisa. Artículo único. En virtud de la compascuidad establecido sobre toda la extensión de la frontera, que desde Iriburieta hasta la confluencia del Ugabsaguía y del Egorgoa separa el valle español de Aezcoa del francés de Cisa y de Saint Juan Pié de Puerto los ganados mayores ó menores, sin distinción de clase, pertenecientes á cada uno de estos dos valles, podrán entrar a pacer y á abrevarse libremente sobre el territorio del otro, permaneciendo allí únicamente durante el día, de sol á sol, y regresando á pasar la noche dentro de sus respectivos términos.

III. 16. 1861.eko hitzarmena

Leku berrian bilduko dira, Arratakan. Baldintzak ere aldatuko direlarik. Hitzarmenak 8 atal ditu:

- 1.- Azienda larria, egunez zein gauez fazeria barnean utz daiteke.
- 2.- Uztailean Garaziko azienda markatuko da, 4an Arratakan; 5an Ursarioan eta 6an Orionsilon.
- 3.- Azienda markatzean, behi edo zaldi buru bakoitzagatik 2'5 libera ordainduko dute garaztarrek.
- 4.- Azienda xehea ez da sartzen aurreko baldintzetan. Beraz gauean bildu beharko da.
- 5.- Hitzarmena 1865-XII-3 leian bertan behera geratuko da.
- 6.- Markatu gabeko azienda larria gauean harrapatzen bada, 1856ko muga hitzarmeneko 4. anejoa betetzeaz aparte, jabeari 2 duro isun ezarriko zaio.
- 7.- Hitzarmen hau 2 Estatuko ordezkariak onartu ondoren indarrean sartuko da.
- 8.- Garazikoa ez den azienda ez markatzearren, Garazik 2 ordezkari izendatuko ditu kontrolatzeko.

Urte batzuk, Aezkoan bederen, harrapaketa bat egitean, mendizainak egun berean Ibarreko alkatearengana joaten ziren, idazkariarekin batera akta egin zedin. 1863-68 urte artekoak bakarrik aurkitu ditugu, baina nahikoa da gerturapen bat lortzeko, ikusteko noraino ailegatzen zen kontrola.⁵⁸

NOIZ	Ordua	NON	ZENBAT	Oharrak
1863-IX-13	Arrats. 9ak	Egurgoa	—	Istiluak sortu ziren. Ikusi 56. oharrean bere kronika.
1863-XII-9	Ar. 6ak	Ezkanda	675 ardi	Ikusten ez zenez, artzainek deklaratu ontzat eman zuten.
1864-VI-4	—	Errozate	21 behi 7 behor	
1864-VII-5	g.10-11ak	Idopil	14 behi 3txekor	Artzainik gabe.
1864-VII-25	—	Idopil-Arpea	10 behi	Artzainik gabe.
1864-IX-3	g. 10ak	Mendilaz-Idopil	20 behi	11 behik marka zutenez, bortuetara itzuli zituzten.
1865-IX-26	g. 10ak	Errozate	484 ardi	Garaziko artzain batekin eraman zuten ardisaldoa.
1866-VI-4	g. 1 - 2ak	Ursarioa	56 behi 3 txekor	
1866-VI-7	g. 12 - 1a	Idopil - Mendizar	37 behi 2 txekor	
1866-VII-1	g. 12 - 2ak	—	24 behi 3 txekor	
1866-X-14	—	—	40 ardi	Artzaina agertu eta isuna ordaintzean, ez zuten eraman.
1867-VI-8	g. 9 - 11ak	Egurgoa- Mendilaz	16 behi	
1867-VI-14	g. 9-10ak	Idopil	29 behi 3 txekor	19
1867-VI-24	g. 2ak	Egiluzea	behor mando bat	Urte baino gehiagoko mandoa.
1867-VI-29	g. 2-3ak	Ezkanda	8 behi	
1867-VII-10	g. 11ak	Ursarioa	4 behi	
1867-VII-25	g.10-11ak	Arnoztegi	9 behor	
1867-IX-9	g. 12-1a	Bagaberrí	20 behor	
1868-V-19	g. 2ak	Zalbetea	22 behi	
1868-V-29	g. 10-2ak	Errozate- Idopil	22 behi 18 behor	18 behor Errozaten, 9 behi Ezkandan eta 13 behi Idopilen
1868-VI-1	g. 2-2	Zalbetea	6 behi	

NOIZ	Ordua	NON	ZENBAT	Oharrak
1868-VI-7	g. 2-3ak	Urkulu	11 behi	
1868-VI-10	g. 2-3ak	Urkulu	12 behi	
1868-VI-13	g. 2ak	Erlan	3 behi	
1868-VI-28	g. 10-11ak	Txurrusta-Mendizor	12 behor	
1868-VII-7	g. 2-3ak	Organbide-215.m	6 behi 4 behor	215. mugarría edo Iparragerre saroa.
1868-VII-19	g. 2-3ak	Idopil, Sobar	5 behi 3 behor	Behiak Sobarren eta behorrak Idopilen.
1868-VIII-16	g. 11-2ak	Arnoztegi-Ezkanda	28 behi	
1868-VIII-17	g. 2-3ak	Arrataka-Ursario	30 behi	
1868-XII-7	ar. 6ak	Arpea	78 ardi	Isuna ordaintzeko 6 buru eta piko bat kalkulatu zen.

III. 19. Orbaizetako ola, mendi zesioa eta Fazeria. 1784-1874

Aezkoako historian, 1784. urteak garrantzi handia izan zuen, Aezkoak Orbaizetako Ola eraikitzeke erregeari ibarreko mendiak utzi zizkiolako. Aezkoa ia 200 urte borrokan izan da mendiak berreskuratu arte. Aetzek argi zuten mendien jabeak zirela eta zesioa mendiko egurra eta burdina ateratzeko bakarrik zirela, baina Olako zuzendaritzak ez zuen iritzi berea. Luze joko beharko genuke Orbaizetako Ola eta Aezkoaren arteko harreman txarrak azaltzeko. Oraindik ez da gehiegi ikertu, baina zenbait datu lortu ditugu.⁵⁹

1781ean erregeen ordezkariak Orbaizetako ola zaharran izanzen dira eta ikusten dute leku aproposa dela berria eraikitzeke. 1784an azpijokuz mendi zesioa lortuko da eta 1790ean lanean dira ola berrian. Gerra guztietan, (1793-95, 1808-15; 1823-25; 1833-39), kalte ugari jasoko du: erre, desegin, berreraiki... 1870. hamarkadan ixtea erabaki zen arte. Itxi baina mendiak bueltatu ez, 1979. urte arte ez baitzen lortu. Ola eta Aezkoaren artean laster hasiko dira eztabaidak. Aetzen ustez zesioa eman arren, bere mendiak beti bezala erabiltzen ahal zuten: abereak eraman, egurra zein orbelak hartu, arrantzatu, fazeria mantendu... baina Olako zuzendaria laster saiatu zen egoera aldatzen. Lehenbiziko salaketa 1790.ean egin zen. Aitzakiak bi izan ziren: zuzendariak arrantzarako arautegi bat ezarri zuen eta aetz batzuei isunak ezarri zizkien, Olako mendietatik zuhaitzak baimenik gabe hartu zituztelako. Bertzaldetik zuzendariak Eugiko Olan "Lengua acotada" izeneko arautegia Orbaizetan ezarri nahi zuen, Aezkoa eskubide gutxiagorekin geratuz. Araza azaleratzean gertakizun gehiago jakin ziren. Esaterako juntakideek zesioaren baldintzak aldatuta zeudela jakin gabe sinatu zutela, zuzendariak bazkari on batera konbidatu eta mozkortu zituelako; gaztelaniaz ongi ez ulertzean ez zekiten zer zegoen idatzita dokumentuan... Burokrazia eta gerrak mendi zesioaren berreskurapen eskaera atzeratzen joan zen. Epaiketa 1852-54an egin eta galdu zuen ibarrak. Erran bezala Aezkoak 1979. urte arte ez zituen mendiak berreskuratu. Saiakerak anitz ziren eta hona hemen adibide gisa Madrilako Parlamentua izan den aetz bakarraren hitzak:⁶⁰

La República, amante de la rectitud y de la razón, debe reparar la injusticia que la Monarquía ha venido comentando con este valle y verificar sin tardanza la devolución de los indicados montes, bien persuadida de que aparte de la razón que le asiste, se trata de un valle incomparablemente más liberal que ningún otro de Navarra desde tiempo inmemorial y por lo mismo doblemente merecedor de que le proteja y atienda la República. A tal fin el diputado Provincial de Navarra que suscribe, D. Pedro Beunza Landa, oriundo de Orbaiceta de este Valle de Aézcoa, y como tal amante del mismo, comprendiendo la razón que le asiste al dicho valle, en representación del mismo, desea practicar cuantas gestiones sean necesarias para que el Gobierno Nacional, bien penetrado de que

se impone la obligación de que el Estado verifique la reversión de los montes y terrenos que el Valle de Aézcoa le cedió...

Pedro Beunza, Probintziako deputatua. 1934-X-4

Fazeria dela kausa, arazoak 1840. hamarkadan hasiko dira. Olak erranen du mendiak olarenak direnez, Aezkoak gazazterrei kobratzen diena diru hori Olak hartu behar duela. Epaiketara jo eta aezkenean erabaki zen erdibana hartzea. Aezkoarendako kalte handia izan zen, Ibarreko kontuetan ikusi dugun bezala, zenbait urtetan presupuestoaren portzentai dexente baitzen, adibide gisa 1843ko presupuestoetan fazeriarena %18a zen, agian Olarekin banatu ondoren. 1849ko kontuetan bederen bermatzen da Olari erdia ematen zitzaiola.

III.20. Fazeriaz datu batzuk 1868-1931

1868ean geratu ginen eta 1932. urte arte ez dugu datu gehiegirik. Zenbait gutun euskaraz, estadistika batzuk eta 1910. urte inguruan ematen du Madriletik fazeria bertan behera uzteko manatua iritziko dela. Ezin dugu zehaztasun handirik eman, gai hontaz dokumentazio gutxi ikusi dugulako. Erreferentzi batzuk 1932.eko txostenean agertzen dira, baita Salcedo Izuren liburuan ere. Euskarazko gutunak eta estadistikak kronika bukatzean emanen ditugu. Orain garai hontaz dakiguna komentatuko dugu. 1920an Madrileko Parlamentuan zegoen Iruñeko Manuel de Aranzadi parlamentariak Aezkoako Mendi zesioaz elekatu zuen, bere historia laburbilduz. Diskurtsoan fazeriaz ere zerbait komentatzen du:

facería que imponía, más que los Convenios, la realidad misma; porque aquellos pueblos, separados por fronteras artificiales, viven dentro de un mismo ambiente, que crea la Geografía, la étnica y el idioma, realidad que el Tratado de límites de 1856 a estos efectos reconocía...

1856ko Hitzarmenean azienda bakarrik egunez utzi ahal zen, eta Aranzadik erraten duen bezala, kaltegarria zen bi ibarrendako eta ondorioz bi ibarrek hitzarmen bat sinatu zuten 1886an, eta garazikoek ordaintzen zuten azienda gauan fazerian pasa ahal izateko. Hitzarmen hau Madrilek 1910an debekatu zuen. Aezkoak hitzarmen hori berreskuratzeko zenbait eskaera egin zituen, esaterako 1917koa, eta orain Aranzadik 1920an berriz legalizazioa eskatzen zuen. Baina ematen du normalean hitzarmena indarrean zegoela, ilegala izan arren. 1932 urteko txostenean, Irujo injenieriak dio gaua pasatzearen baldintza 1910 urte arte legala zela eta urte horretatik 1932 urte arte gaua pasatzea, ilegala izanik, ez zela zigortzen. Arazoa sortu bide zen Diputazioak baldintza hori legalizatu nahi izan zuenean. Dena dela, Juntaren komentarioaren arabera, Ibarrek eskubide gehiago galduta bide zituen urte horietan. Kobratzeko azienda larria bedern kontrolatu zen. Hortik estadistika atera dugu, 1889-1916 urte artekoa.

III. 21. 1932-34ko hitzarmena

Aintzina eta egungo hitzarmenen artean zubi bat egiteko hitzarmen bat dugu, 1932-34koa, Hegoaldean gerra suertatu zenaren atarian. Nafarroako Gobernadore Zibilarendako txostena da, Madrileramateko.⁶¹ Fazeria muga bi aldetan dago, 5 kmko zabalera duelarik. Orain arte azientak egunez bakarrik bazkatzen zenez, gauean ere onuragarria gerta litzateke. Hitzarmenak 5 urte iraunen du:

1. Mugak: Garazikoazienda Aezkoan sar daiteke 207. eta 225. mugarrien artean, eta 207. mugarritik hasita, lerro bat markatzen da: Urkulu pasabidea, Urkulu leku populatua, Retacas pasabidea, (Arrataka); Orchola eta Archua leku populatuak; Ezcanda lepoa alambrez itxiko da; Mendizar magaleraino eta hortik 225. mugarriraino. Mendebaldeko Urkuluk km zabalera du; Sobarrek 1'5 km eta Huartepea eta Mendizarrek kilometro bat. Garazikoazienda populatua dagoen lekuetan itzala erabil dezake. Aezkoakoazienda bazkate eta gaua pasa daiteke 210 eta 218 mugarrien artean, km bateko zabalera eta 225 eta 228 mugarrien artean 1'5 km zabalera.

2. Azienda kopurua: Garazi: 500 behi, 5.000 ardi eta 100 behor. Aezkoa: 300 behor.

3. Diru kopurua: Azienda larria, buru bakoitzeko 10 pta eta azienda xehea 0'75 pta.

Baldintza hauek 1932an Juan Ignacio Irujo injenieruak prestatu zituen, baina Madrilen ez ziren onartu. 1934-III-3an Nafarroako gobernadore zibilak Aezkoari abisua emanen dio, Madrilen Frantziako enbajadorearen bidez, Gobernuak jakin duela fazeriako baldintzak aldatu nahi direla. Bada, txostena azkar bidaltzeko aginduko du gobernadoreak. Ekainaren 14an Diputazioak Aezkoari onarpenaren berri emanen dio eta 24an Ibarreko Juntak ofizialki jakinen du. Teorian 1939-IV-lean bukatu behar zen, baina gerra dela kausa, ez dakigu mantendu zen ala ez. Arazoa edo duda Juntaren komentario batekin sortuko da:

restableciéndose con ello el beneficioso ejercicio de nuestros seculares y múltiples derechos, absorbidos por la acción centralizadora del Estado a este Valle de Aézcoa.

Aezkoan, gerra ondoren, gobernu berriak ez zuen argi ikusten fazeria eta artzaien ibilera alde batetik bertzerera. Horrela ikertu ondoren, 1943an Aduanako ordezkariak orbaiztarrek eskatuta onartuko dute.⁶²

III. 22. 1990.eko hamarkada. Egungo fazeria

Egun fazeria mantentzen da eta 1932ko baldintzekin alderatzen badugu parekoak dira. Hamarkada honetan hitzarmen bera sinatu da. Horrela 1997koa hartuko dugu, laburpen txiki bat eginez.

1. Fazeriako mugak: Egun fazeria lehebiziko mugarritik hasten da, eta ez 1934an bezala, 207.tik. Beraz, Arnoztegi, 205. mugarrin hasten da, (dokumentazio zaharrea Iriburieta deiturikoa), eta gutxi gorabehera parekoa da fazeria, baina dena segituan 225. mugarriraino, Zaraitzuko mugariraino.

Azienda xeheak eta behiek Ibarren arteko mugan luzera berbera badute, Aezkoan barna desberdina da, behiendako leku gehiago utziz. Zaldiendako Erroizaten, 221. mugarrin hasten da. Garaziko fazeriaren deskribapena dugu: Jatsagune, Oilaskoa, Minasaro, Organbide, Erroizate, Txurrusta, Artxilondo, Nekexarre, Urkuluko kaskoa eta Kontrasario.⁶³

2. Azienda kopurua: Garazi aldetik: 250 behi, 35 zaldi, 4.850 ardi. Ardi kopuruaren %12 kalkulatu da bildotsendako eta Garazik nahi badu, 1.400 ardi eta 140 bildots gehiago sar ditzake. Aezkoakoaziendarendako ez dago mugarik.

3. Diru kopurua: Garazik ia 6 miloi pta ordainduko ditu urte osorako eta Aezkoak miloi bat inguruan, 180azienda larri buru sartzeagatik. Artzainek baldintzak bete ezean, hitzartutako isunak ezarriko zaizkie. Bertzaldetikazienda larriak medalla bana eramanen du.

IV. Fazeriaz erran dezakeguna

Ez dugu gauza handirik erranen. Gurea ikerketa eta kronikaren artean koka dezakegu, eta horrela ezin izan dugu ikerketan sakondu. Beraz Aezkoa-Garazi fazeria ikertzeko lehenbiziko pausua emana dago. Baina ez gaitezen gera atarian, bi ibarren harteko harremana handia izan baita: abeltzantza, feriak, langile trukaketa, kontrabandoa, ezkontzak, gerren kontrako babesa... Beraz, oraindik pausu anitz eman behar dira.

HISTORIA: barride edo auzokideen arteko hitzarmen guztiak bezala, historiak bere gorabeherak izan zituen, une gozoak baita gogorrek ere. Arazo unetan, Aezkoak eta Garazik mementuan behar zen jendearengana jotzen zuten. Hasieran jende batzuei arbitro izateko. Estatuaren presioa gero eta handiagoa izan zenean, eta gertuago zegoenean, haiengana joko dute, azkenean protagonista nagusiak izatera ailegatu zirelarik, batipat Estatuaren muga zegoelako, eta haiendako Estatu arazo bihurtu zelako, bi ibarren presentzia, garrantzia, eta eskubideak gero eta gutxiago izanik. 1856ko hitzarmenaren ikusi dugun bezala, ibarren lurrek trukatzeko bertzerik ez zuten balio izan.

KRONOLOGIA: XVIII. mende artio ez du ematen arazo handirik izan zenik. Hipotesi gisa erran daiteke demografikoki eta sozioekonomikoki Aezkoa berean mantendu bazen, Garazi eta Donibaneren garapenak presioa sortu zuen, eta artean lurren beharra. Fazerian bertan borda gehiago eraikitzea edota azienta gehiago sartzeak hasierako baldintzak desorekatu zituen. Ondorioz 1716-1833. urte artean une larriak izan ziren. Pasa den mendearen erdian azkenean akordio bat lortu zen. Egoera orekatzeko Garazikoek dirua ordainduko dute, fazeria erabilpenaren truke.

GERRAK. Gerren eraginaz edo Estatuaren arteko hitzarmenen ondorioz, harremana nahasten zen. Gerrengatik 2 adibide argi ditugu, Konbentzione gerra eta Napoleoniarrak. Biak bukatu bezain azkar aetzak prest agertu ziren fazeria desegitera, nahiz eta gero haserrea baretu eta atzera jo.

ARTZAINEN ARTEKO LISKARRAK. Artzainen arteko eztabaiden ondorioz, desagertzeko zorian izan zen. Ibarren arteko eztabaida eta liskar gogorrena, Yanguasen hiztegiaren luze aritzen denaz, 1823-28 urteetan koka dezakeguna. Ikertzekoa da zein izan ziren benetazko arrazoiak. Dena dela gizartearen gertatzen den bezala, zenbait maila desberdintzen dira: administrazioek erabaki behar dutena, jendearen iritzi eta portaera, egunerokotasuna zera da, bortuetan egunero bizi zireneko harremanak... Gertatzen zena zen iritziak desberdinak zirela, eta ezin da, errezegi egin ohi bezala, dena maila batean kokatu, hau da, Estatuaren edota ibarren arteko liskarretan, guztien arazoak nahasten baitira: ibarra barneko tirabirak; artzainen artekoak; artzainak herri edota ibarren administrazioekin, Estatuaren artekoak...

ORBAIZETAKO OLA. 1784an Aezkoak bere bortuak erregeari utzi zizkion ola berri baten truke. Orbaizetako Ola eraiki zen, eta pixkanaka potere eta eskubide gero eta gehiago eskuratu zituen Olak, Aezkoan barna ia irla administratibo bihurtu zelarik. Horrela Olatik oztopo guztiak imini ziren, Aezkoa Bortuetan eskubiderik gabe gera zedin. Gai hau sakonki aztertu beharko da. Bitartean, erran dugunaren adibide gisa zenbait aipamen agertu dira kronikan zehar.

ESTATUEN PARTE HARTZEAZ. Gure inguruan ikerketak gehienak Erronkari-Bare-

tous fazeria eta batipat Alduden eztabaidaz ditugu. Gaiak aztertzerakoan errezegei sartzen da bi estatuen eztabaida. Konbentziona gerratik aintzina haustura bat dago, bi Estatuen presioa eta mentalitate aldaketa daudelako. Bi estatuek bere mugak zehaztu nahiko dituzte. Lehenbiziko saioa, 1785koa ez da gerragatik burutuko, eta bigarrena ailegatu zenerako, 1856an eginikoa, mentalitatean Estatuen arteko 2 gerrek eragin handia izan zituzten. Fazeria ikertzean nahiko garbi agertu da aldaketa. 1785. urte arte, eszepzio batzuekin, ibarren izena bertzerik ez dira agertuko, aintzinean, gero eta maizago, zein estatutan kokatuak. P. Vilarrek pistak ematen digu jakiteko espainol eta frantses nazionalismoak 2 gerren artean finkatu zirela.

Ene ustez, fazeria hauek eta ibarren arteko eztabaidak horiexek direla, ibarren artekoak. Pentsa dezagun anitz senide zirela, alduidetar eta baigorritarrak erroibartarrekin, aetzak garaztarrekin eta abar. Auzokideen arteko istiluak arruntak izan dira, maizago abeltzainen artean. Horregatik garaztarraz aparte, noizbehinka ikusiko dira zaraitzuarren zenbait erreferentzi.

V. ERANSKINAK: Euskarazko dokumentazioa

Aezkoako Artxibategia 1794an erre zen, Konbentziona gerran. Dena dela zenbait paper Hiriberriko bati esker salbatu ziren: 1773ko soldaduzkarako zerrenda... edo komentaturiko dokumentazioa. Geratu denaren artean euskaraz gutxi daude eta seiak Garazitik idatziak, fazeriaren berri emateko. Ez da gauza berria fazeriei buruzko informazioa euskaraz izatea. Ez dugu gehiegi aztertu baina adibide gisa dugu Satrustegiren ikerketa, XVIII. mendeko euskarazko eskutiz ofizialaz egin duena. Ikerketa horretan Orzaize-Baztan eta Sara-Baztan fazeriei buruzko informazioa agertzen da.⁶⁴

1- Esterenzubin, 1863-VIII-10ean

Estérençuby le 10 de Août 1863

Estérençubico, herrico, jaun marirac, Alkhatiac, eta dembora berean limiten verificationneco Délégatu denac. Othoizten ditu, Espainiaco Erressumaco Aezcoan diren, Jaun, Jose Luis Arrese, eta Juan Miguel Berrueza, orobat délégué direnac beren limiten verificationneco, guri marcatceaz noiz ethorrigo diren, Erroissetaco limitala, bornen edo cedarren verificationnearen eguiterat. Horiec jiten direnean gu han caussituco gare. Othoi arraposta berehala. Badu ohoria cuen saludaceco, adisquide guissa.

Le Maire Etcharren

2- Esterenzubin, 1863-VIII-19an

Gure beherian sinatcen dugu Esterençubico Alkhatiac, declaratcen dugu, errecibitu dugula, abostuaren 19an 1863, Eguerdico orenetan, Jaün Joanes Miguel Khoanarena, Espagnola ganic, ordria, Jalguiteco, Cedarren verificatcerat; Esterencubico limitacoen hilabete hunen 25an eta Lecumberricoac hilabete hunen 26an iskribatua dena par Dn Jose Luis Arrese Délégué Espagnol, eta cargatu guira Lecumberico delegatien aberticerat.

Eguina Esterençubin Abostuaren 19an 1863

Le Maire Etcharren

3- Arnegin, 1901-X-15ean

Arnéguy, le 15 octobre 1901

Yauna, Galdu dut 4 urtheco behi bat, zoinac baitu bilua, ogi bihi kolore, eta ilabete baten burian erdi beharra. Nahi nuke egin dezadazun fagore, yakitia behi hortaz zerbeit berri, zure bailleco herritan. Yakin dut norbeitic erran duela, merkatu egunian, badela behi frantses bat zien herrietan. Ez dut yakin ahal izan norc errana duen gauza hori. Zabala eneco mutil izanac errana daut eni. Behar dena pagatuco dutalaric eginezazu, Yaun alkatia, fagor behi horren, oharkaraztia.

Errecart, Guillaume; Migueltua Arnéguy

4- Donazaharren, 1901-VI-29an

Sn Jean Le Vieux, le 29 Juin 1901

Ene adiskide Jauna, Eskuaraz izkiriartzen dautzut zeren ez baitakit maleroski españolic eta zeren zuc ere ez baitakizu naski franxesic. Iduri zaut klarki izkiriartuz elgar konprenituko dugula eskuaraz. Lehenic barkamendu galdatzen dautzut ene luzamenaz; zure letra hunara ethorri denean kanpuan nintzan. Markac gintuen bost egunez Apanizen eta Iratin. Gero etcherat itzuli nizanean ene listac behar ukan ditut berehala comunicatu garder eta egun choilki izan dut dembora lista horien berifikatzeko. Beldur niz ez dautzula zuc nahi zinduken berri chuchenic igorriko ahal, nahiz borondatia ez nuken falta.

Ez da aise segurki yakitia norc dituen kabalac españolko bazketan, deklaratu eta markatu gabe; hortako behar gintuzke akit guziac bederazka ikusi. Emeki emeki gardekin batean berri gehienac halere yakin ditzazkegu; baina hortako behar da adrezia eta dembora. Aldi huntan igorten dautzut lan ttipi bat, Garaziko eta Aezcoako listac elgarrekin komparatuz egin duana. Ikusiko duzu anitz kabaladunec hemen deklaratu baino behi gutiago markarazi dutela Españan; baditake zombaitec behi zombait atchiki duketela etchian eta beste zombait frantziako mendietarat igorri. Baina beldur niz beste zombaitec trompatzen gaituztela zuec eta guc. Kasu egin behar liteke hurbildanic gure artzainer eta menturaz ere zuen garder. Diote batzu eta bertzeac elgarrekin akomeatzen direla; ez dakit zer fundario duen erran horrec. Zure Secretarioac komparatuko du ene lista bere markako listarekin eta menturaz zerbait argitasun yakinen duzue. Deus bertzeric egiten ahal badut zuen zerbitzuko gelditzen naiz eta zuen adiskide fidel.

Léon Curutchet

Euskaraz eginiko zerrenda bat dugu, eta letra formaren arabera ziur aski aipatzen duena da.

Fazeriako kabalac

Ordria	Kabaladunen izenac	Herria	Españan markatu behiac	Garaziko listan deklaratiac	Erraitecoac
1	Auzquy - Marchot	Arnéguy	4	5	
6	Echemendy. Serora	id.	3	5	
8	Boloquy. Chapar	id.	5	6	
10	Errecart-Abot	Ispura	2	3	
15	Aldacourrou. Aguerria	Uharte	5	9	
16	Gastelu. Beterretche	Ainhiza	6	8	
23	Gastambide. Mantola	Arnéguy	5	6	
25	Aldacorrou. Aldabia	Ispura	4	5	
31	Sarador. Gaineco. borda	Sn Jean. Le Vieux	6	7	7 behi badira segur Españan.
34	Pauloréna. Larria	Ispura	6	7	
35	Officialdéguy. Bidartondo	Uharte	5	8	
38	Bidegain. Irumbéhère	Sn Jean. Le Vieux	6	7	_____ id. _____
40	Echamendy. Bernatenia	Arnéguy	3	7	
41	Auzquy. Echeverria	id.	6	9	

Ordria	Kabaladunen izenac	Herria	Españan markatu behiac	Garaziko listan deklaratiac	Erraitecoac
43	Laco Baptiste	Sn Jean. Le Vieux	5	6	6 behi badira hor, Miguel artzainaren gomendian.
44	Apestéguy. Antchiburu	Ispura	7	9	
45	Harriet. Aleiraborda	Arnéguy	8	10	
65	Landaburu Michel	Aincille	6	7	6 behi markarazi ditu bestenac beria ere badu bat numbait.
76	Etchemendy. Bastellia	Arnéguy	3	6	
78	Caillava- Bidegain	Bustince	7	8	8 behi badira hor, bat markatu gabe nausiac artzainari pagatia.
81	Doray. Biscay	Arnéguy	2	3	
89	Chapital. Barberaenia	Uharte	6	7	
99	Idiart- Harispuru	Uharte	2	7	
100	Pouchoulou. Chaltro	Arnéguy	7	9	
101	Montroustéguy Pecoche	Sn Jean.le.Vieux	6	7	7 behi badira hor segur.
103	Errecart. Miguelitua	Arnéguy	10	11	
104	Apésteguy. Predo	id.	1	2	
111	Etcharren. Lohola	Uharte	7	9	Kasu huni ere. Yakin dut behi bat hor izanic etcherat yina dela.
118	Iribarne. Yakorria	Arnéguy	11	13	
119	Sn Pée. Camino	Uharte	4	5	
	Bidart. Tristantene	Jaxu	"	4	4 behiac hor ziren marka egunian akitic gabe.
	Pouchulu. Ithurraldia	Gamarte	"	8	Ezin atzemanaz gelditu 8 behiac oro pagatiac artzainari.

Agertzen dena: Arnegiko 13 zaldun; Izpurako 4; Donezarreko 4; Uharteko 6; Ainhiza, Jatsu, Aintzila, Bustintze eta Gamarteko bana. 166 zaldi Aezkoan markatu ziren, 223 Garazin deklaratu zirelarik.

5- Donazaharren, 1905-IV-17an

St-Jean-le-Vieux, le 17 Avril 1905

Adiskide Julian, Morde Etcheverriren phartez izkiriitzen dautzut yakin arazteko behar zinduzketela okupatu gauazko belharraren kontratuaren berritzeaz. Contratu hori finitzen da heldu den oxailean. Morde Etcheverric nahi luke yakin leheneko aldietan bezala behar diren desmarchen egiteko erreparoac hartuko dituztenez. Dembora berian morde Etcheverric othoitzen zaitu igor dezazun berehala Luzaideko aduanara usaiako bermearen documenta. Egin ezadazu othoi arrapostu bat gauza horien gainean.

Zure adiskide

León Curutchet

6- Donazaharren, 1907-X-28an

Sn Jean Le Vieux le 28 Octobre 1907

Chef Monsieur

José Larrañeta, Pena handi batekin yakin arazten dautzut, Morde Louis Etcheverry, gure syndica ohoragarria eta anitz maitatua, hil izan dela hilabete hunen 15an. Morde Luro Lacarracoac egiten du orai haren plaza. Yaun hunen phartez igortzen dautzut abisua helduden astelehenean, azaroaren 4an, prest izanen girela zuen pagatzeko. Yinen zira beraz egun hortan Donibanera zure lagunekin. Sosa althatuco duzue Prezeturrean eta gero baskalduko gira elgarrekin usatu bezala, á l'Hotel des Pyrénées. Beraz helduden astelehen artio.


Zure zerbitzari,

Léon Curutchet

VI. Estadistikak

- ** - Garazi eta Donibane: 1829, 1871, 1931, 1946, 1968, 1990. urteko datuak.
 - Aezkoa: 1831, 1879, 1930, 1941, 1970, 1991eko datuak. 1831-1869 urte arteko datak artifizialak dira. Sendagilea eta botikariari ordaintzeko zerrendetatik hartuak dira. Aezkoan urte bat baino gehigo zutenek ordaintzen zuten. Datu guzti horiei 50 gaineratu dizkiegu, errealitatek gertuago izateko.


Ibarren populaketa



1844-VIII-8an Aezkoako alkateak bere agendan Garaziko azienda larriaren buruak apuntatu zuen, Garaziko arduradunari bidaltzeko, gero ordain zezaten. Txekorrak buru erdi batez ordaintzen zen, bada 713 buru Aezkoan izategatik ordaindu zuten garaztarrek.


Garaziko azienda larria

1890-1912 urteetan Fazerian deklaratu




Fazeriako azienda larria

1849 urtean



Fazeriako azienda larria

1890. urtean



BIBLIOGRAFIA

LABURDURAK

ND: Nafarroako Diputazioa

NG: Nafarroako Gobernua

AEF: Anuario de Eusko Folklore aldizkaria.

ND-k eta gero NG-k argitaratutako aldizkariak::

- CEEN: *Cuadernos de Etnología y Etnografía Navarra*

- FLV: *Fontes Lique Vasconum*

- PV: *Príncipe de Viana*

